



uk

209. zenbakia / 2012ko otsailaren 29a

URTERO 20€

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urtero argazki zahar eta barriak
Urtero zure proiektuak lau haizetara
Urtero 20 euro



www.ukaldizkaria.biz



neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK
 zure etxean, hamabostero.
 Urtero 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

Dacia Sandero
 5.790€¹ tik hasita



Dacia Duster
 10.400€² tik hasita



URTEBETEZ³
 ASEGURUA DOAN



DACIA
 GROUPE RENAULT

f Dacia España

YouTube Dacia ESP

3URTEZ⁴
 BERMEA EDO
 100.000 km

www.dacia.es

1.) Publikoarentzako Salmenta Prezioa, Penintsularako eta Balear uharteetarako, 2012ko otsailaren 29a arte, partikular batek edo autonomo batek Sendero Base 1.2. 2.55 Kw (75cv) erosteko. Zergak barne, RCI Banque Sucursal en España finantzatzu gero. Horrez gain, 500€ ko beherapena Publikoarentzako Salmenta Prezioan, finantziarioari lotua. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 4.000€. RECSA diruz lagundutako beherapena, finantziarioari lotua. Sandero gamako edozein ibilgailutan. 2.) Publikoarentzako Salmenta Prezioa, Penintsularako eta Balear uharteetarako, 2012ko otsailaren 29a arte, partikular batek edo autonomo batek Duster Base 1.6 77kw (105CV) bat erosteko. Zergak barne, RCI Banque Sucursal en España finantzatzu gero. Horrez gain, 1.000€ ko beherapena Publikoarentzako Salmenta Prezioan, finantziarioari lotua eta bateragarria doako aseguruarekin. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 4.000€. RECSA diruz lagundutako beherapena, finantziarioari lotua. Duster gamako edozein ibilgailutan. 3.) Arrisku orotako aseguru, doakoa, lehenengo urtean, 300€ ko frankiziarekin 30 urteko gorako bezeroentzat, eta 600€ koa 30 urtekoentzat edo 30 urteko beherakoentzat, MAPFRE konpainiarekin. Dacia gamako ibilgailu berri bat 2012ko otsailaren 29a arte erosten duten partikularentzat eta autonomoentzat, RCI Banque Sucursal en España (finantzatu beharreko gutxieneko: 4.000€), RCI Banque Sucursal en España oparitutako aseguru. 4.) Aurreneko bi urteetako bermea, kilometro-mugarik gabe. Bigarren urteko aurrera, bermea amaltuko da 2 baldintzetatik bat gainditzen denean. Irudietako modelook: Duster Laureate 1.6 77 Kw eta Sandero Laureate 1.55Kw.

Dacia Sandero: Kontsumo mistoa (l/100Km) 4,0tik 7,3ra. CO₂ isuria (gr/Km) 104tik 169ra.
 Dacia Duster: Kontsumo mistoa (l/100Km) 5,0tik 8,0ra. CO₂ isuria (gr/Km) 130tik 185era.

Dacia recomienda elf

GAURSA Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. Iurreta · Gran Vía, 65. Tel. 94 441 74 50. Bilbao
LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagarmínaga
 ERREDAKZIOA: Zuberua Iturburu, Julen Nafarrate,
 Nere Gijarubia, Irantzu Sagarmínaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILAK: Jorje Perez, Bitor Egurola, Fredi Paia,
 Armando Llamas, David Crestelo Kres, Algortako Berto Eskola
 eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martínez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
 herri aldizkari eta euskara elkarteen
 Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	
 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 YBELA
 Erandioko Udala	 Sopelanakako Udala
 Urdulizko Udala	 Plentziako Udala
TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111	Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du
 Bizkaiko Foru Aklundia Diputazioen Foral de Bizkaia Kultura Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Umorea inauterietan.
6. FACEGUK. (...) Zer egingo zenuke gizarte parekidea lortzeko?
7. LEHEN ETA ORAIN. Gorlizko Andra Mari basiliza, 1960.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Lur Moragues Saitua.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Aratusteak.
28. ARGAZKIA. Urdulizko baserria.
30. BERBETAN. Mikel Markez, katautorea.
34. FOTOGRAFIA. Miren Larrea Agirre.
40. SAKONEAN. Argituz, Barrikako hondartzaren gaineko liburua.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Entre Interiores film laburra.
43. MUSIKA. Leioako Pop-Rock Lehiaketa.
44. LIBURUAK. Harkaitz Cano Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoa.
45. KIROLA. Mirandeseko Alain Arroyo.
46. ELKARRIZKETA. Izar Nieto eta Miguel Atutxa horma-irudigileak.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Bakailao Saskia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako batela, 1972.
54. AITORMENAK. Goversos taldeko J. Sang.

Azala: Miren Larrea Agirrek bildutako argazkia

www.ukaldizkaria.biz




30 Mikel Markez

Berbetan

Errenteriako kantautoreari disko barriaz, irratiko saioaz, euskal kantagintzaz e.a. galdetu diogu.



11 Lur Moragues



54 J. Sang

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalca/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

David Crestelo Kres

> Plasentia Butroe museoko arduraduna

Memoria eginez, gaur, ahaztu gabe

1937ko martxoaren 5ean Euzkadiko Gudontzidi-ko ontziek borrokaldirik eza-gunena izan zuten *Canarias* gurutze-ontzi frankistaren aurka, Matxitxako parean. Ontzi horrek, Baionatik Bilbora zetorren konboiagaz egin zuen topo, *Galdames* merkatal-ontzi eta *Gipuzkoa*, *Bizkaya*, *Nabarra* eta *Donostia* bouekaz. Historia horren amaiera denok ezagutzen dugu: frankistek *Galdames* atzeman zuten, eta *Nabarra* ontziko heriotza goraiagarria gertatu zen (49 tripulataileetatik 20k bakarrik lortu zuten salbamendu txalupetara heltea, beste batzuk ahaleginean ito ziren); beste bouek modu batean edo bestean ihes egiten zuten bitartean.

Matxitxako Lurmuturreko borrokaldien 75. urteurrena laster ospatuko da, hainbat oroitzapen-ekimen antolatuz: hurbilekoena, martxoaren 5ean, arrastiko 17:00-etan, Armintzako kaian egingo den lore-skaintza izango da, portuko itsasontzien sirena edo kanpai-hotsek lagunduta.

Bestalde, Plasentia de Butron Museoa gai honen inguruko erakusketa inauguratu dugu, bertan Sopela, Barrika, Gorliz, Plentzia eta Lemoizko itsasgudarien ausardiari gorazarre eginez. Inaugurazio egunean batailan parte hartu zuten gudarien senide batzuk museoraino hurbildu ziren, eta hain ezagunak ez diren borrokaldiaren pasarteak edo istorio pertsonalak eta propioak entzuteko aukera izan genuen.

Lemoizko Txomin Ibergaraik batailari buruz gutxi kontatu zien seme-alabei. Gizon isila, *Nabarra*-n harrapatu zuten faxistek, eta bizirik urten ziren marinelakaz batera, hila-bete batzuk geroago epaitu eta heriotza zigorra ezarri zioten, baina *Canarias*-en Salvador Moreno ontzi-kapitainak eta Manuel Calderon korbeta-kapitainak Francoren aurrean izandako zuzeneko interbentzioak haien-

tzako indultua lortu zuten. Arantza alabak Juanjo nebari begira esan digu honek soldadutza Madrilen egin zuela eta askotan Manuel Calderonegaz bazkaldu zuela; gero, frankistak familiari gutunak bidaltzen zizkion seme isila ondo zegoela kontatuz. Lemoizen, bitartean, Guardia Zibilak askotan familiaren baserria bisitatzen zuen, aita bila, hura itsasoan arrantzan zebilean.

Pedro Lopez plentziarrak zorte txarra izan zuen: *Nabarra*-ko popako kainoilaria zen eta hor hil zuten, 37 urte zituenean. Duela gutxi, gudariaren alabek Pedro seme txikiari aitaren heriotza zelan izan zen kontatu zioten, berak egia inoiz ezagutu ez baitu.

Nahiz eta Matxitxakoko borrokaldian parte ez hartu, Nicolas Elortegi *Donostia* bouaren 2. makinista izan zen eta orain Maitena alabak, irribarretsu, kontatzen digu ontzi horren bizkarrean irakurtzen ikasten hasi zela, aitaren laguntzagaz. Zoritxarrez, aita preso hartu eta Gurs konzentrazio-esparrura eroan zuten. Francisco Patxo Elortegi osaba, *Donostiako* koman-



dantea, Frantziar errefuxiatu zen Matxitxakoko lurmuturreko borrokaz geroztik eta 1939an Venezuelara alde egin zuen errefuxiatu espedizio batez.

Istorio edo pasarte hauek izugarriko altxorak dira gerraren beste eta benetako dimentsioa(k) ezagutzeko, bertsio ofiziale(ta)tik baino haratago.

Aldez aurretik, eskerrik asko memoria eta ondare historikoa partekatzeagatik! ○

gu geu

“Ezin inori pena hau kontatu...”

Mozorroa jantzi eta erantzi... Martxoaren zortzigarren egunekoak 365 egunetarako egitekoen arteko direla aldarrikatu... Poltsikoen hustasuna zuloren batengatik ete den ezeztatu... Urte amaiera arteko geure aurrekontuaren zalantza ziurtasun bihur daitezen ahalegindu... Sortzeko asmoak eta go-goak dituztenak batu, eta alkarregaz zein alkarren lanak arindu... Txikitat dituztenen egitasmoei grabagailua luzatu... Eta herritarrek, herriari ondo entzuteko potentzia handiko audifonoak belarriratu... Ez, hori dana ez da zerrenda hutsa! Baina, hori dana eta gehiago da, beste horrenbestetan legez, zuei eskaintzeko UK honek egindako ahalegina.

Eta atzetik kantu haietako bat: “Jendea presa handiz doa / ba al dugu helbururik / bizitza agudo egin behar da / ez dago denbora galtzerik. Eil! lagun, hago ixilik / arazotan izango haiz bestela / ibil denen modura / izan denak bezala. Baina berdin dio maite / zu eta ni bagoaz / denaren gainetik / gure barkadadearren / zoriontasunean...”; edo beste haren azkeneko letrak: “Itsasoa zen zure maitale / lurrean arrotz zara / ezin inori pena hau kontatu / (e)ta itsasoa ezin maita”.

UK-ko lan-taldea



ALGORTIA, 2012KO OTSAILA

Athletic-eko txarria / Aratusteak izan direla, Athletic-en abenturek sortzen dituzten *kalenturak* eta beste direla, eta txarrikiak saltzen dituzten denda parez pare baduzu... Hori dana lapiko berean sartu eta, umorezko gatz eta piperraz onduz gero, goiko argazkiko antzeko irudiren bat ikusteko aukera izango duzu. Izan ere, inauteriak eta umorea sarri alkarregaz datoz, eta gure inguru hauetan, zorionez batzuentzat, zoritxarrez besteentzat, edonon, edonoiz eta edozelan, Athletic-a beti presente dago. Ahaztu barik! Umore onagatik, txarriki eta abarren dendakoentzat: *Jeup!!* ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Boterean egongo bazina, zer egingo zenuke gizarte parekidea lortzeko?



Getxo

Jone Jaia Gurra

> soziologoa

Lehenengo eta behin, berdintasun zerbitzua sortuko nuke herri guztietan. Gainera, zinegotzi bat horretan bakarrik lanean jarriko nuke, tratamendu handiagoagaz, zehaztasun handiagoa eskainiko nioke berdintasun arloari. Eta ez nituzke berdintasun langileak inolaz ere azpikontratatu.



Algorta

Inge Goikoetxea

> tabernaria

Betidunik etxean lan egin duten andreei soldata jarriko nieke. Izan ere, etxe batzuetan senarrak bakarrik lan egin du, eta horrek eroan ditu haien menpe egotera. Horregatik, uste dut etxeoandreek soldata merezi dutela.




Areeta

Sonia Tercero

> langabetua

Emakume eta gizonaren inguruko hitzaldiak emango nituzke berdintasuna aldarrikatzeko. Hainbat alorretan; hezkuntzan, lanean dagoen berdintasunari buruz informatuko nuke. Horrela, jendeak ikasiko luke zer den berdintasuna.



Romo

Asier Polo

> langabetua

Panfletismotik haratago joango nintzateke; benetako berdintasun politikak martxan jarriko nituzke. Martxoaren 8az eta data zehatzez gain, badira egin beharreko gehiago. Herri-tarrakaz benetako lanketa ona egingo nuke.




Areeta

Xabier Madinabeitia

> irakaslea

Ordenantza bat egingo nuke gizonek etxe lanak egin ditzaten. Ondoren, ikuskatzaile bat bidaliko nuke etxez etxe lan egiten dutela frogatzeko, eta horrela izan ezean zigortuko nituzke.



Romo

Angel Rejon

> jubilatua

Hainbat pentsaera aldatu beharko genuke; hasteko, beste modu batean pentsatzen hasi beharko genuke. Agian, hezkuntza aldatuko bagenu, zerbait aldatuko genuke, baina hori oso erlatiboa da; batzuetan hezkuntza egokia ematen diezu seme-alabei, eta gura dutena egiten dute.



Iraganez doa denbora* beti / ANDRA MARIKO BASELIZA (GORLIZ), 1960

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > errail gaineko bidaia



Urduiz, 2011ko azaroa

Testua: **Peio Arondo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

Tren geltokira hurreratu galtzeko asmoarekin bide berri bati ekin eta parajez aldatu; baina dena ez da bukatu trenen bat galtzeagatik, jarraitu behar da bidetik pauso onez eta baikor, beti beste bat baitator galdutakoaren atzetik.

Kea utziz doa trena igarotako bidean; oskarbi dago aurrean etorriko den eszena, baina ilundu da dena galdu den trenak hain laster botatako keari esker (e)ta kearekin batera dator hurrengo galdera: "eta galdu ez banu, zer?"

Nahiz (e)ta bidaia igaro irensten sua (e)ta kea, ez dago urrun atea eta atetik harago ia dena berdin dago; denak egin du eztanda eta aldaketa non da? lhiserako aukera gutxi, atzean ezin da ezer utzi errail gainean joanda.

* Doinua: Dena ez denean ezer

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz



Info+: www.bilgunefeminista.org

feminismoa > Topaketak Leitzan 2, 3 eta 4an

Bilgune Feministak antolatu ditu Emakume Abertzaleen V. Topaketa Feministak martxoaren 2tik 4ra, Leitzan: *Hamaika egiteko ari gara* lelopean hainbat gai landuko dute hiru egunez. Euskal Herriko Bilgune Feminista duela hamar urte sortu zen, "Euskal Herri feminista lortzeko helburuagaz". Aurtengo topaketan asmoa da, besteak beste, "Emakumeon eskubideen aitortza artikulatzea,

hurrengo urteetarako jarduera feminista definitzea Bilgune Feministaren eskaintza politikoa ezagutzera ematea". Leitzara joateko autobusa antolatu dute: martxoaren 2an urtengo da Areetako Bizkaiko Zubitik, 15:45ean. Autobusean zein topaketetan izena emateko bidali mezua ondoko helbide elektronikotara: leioakobilgunefeminista@hotmail.com eta bfgalgora@gmail.com. o

bertsolaritza > bideokopla lehiaketa

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta AEK euskategien Mintzapraktika egitasmoak abiatu dute Bideokopla Lehiaketa. Ekimenak helburu bikoitza dauka: bate-tik, "euskara ikasten edota praktikatzan dabiltzanak bertsozalearen mundura hurbiltzea" eta, bestetik, "bertsolaritzak euskara praktikatzeko eskaintzen dituen aukerak erakustea". Bideo bat sortzea da kon-tua, koplak oinarri: sei koplatic hamabira

bitarteko sorta osatu behar da, eta bideo bat grabatu. Ondoko gaia jorratu behar du bideo horrek: euskaraz bizi nahi dut, dugu, duzu, zaitut... Kopla horien bitartez "euskaraz bizitzeko nahia adierazi beharko da gura den eran eta doimuan". Ondoren, praktikatuak@gmail.com helbidera bidali behar da, martxoaren 25a baino lehen. Lagun bitik gorako taldeetan aurkeztu behar dira bideoak. o



info+: praktikatu.blogspot.com/



Ekarpenak egin daitezke oraindino

euskara > Lodosako ikastolaren alde

Lodosa-Sartagudako Ibaialde Ikastola egoera ekonomiko oso larrian dago. Ikasturtea amaitzeko ere txarto. Orain aste batzuk elkartasan kanpaina bati ekin zioten, euskaldun orok bere egin dezan Ibaialde Ikastola aurrera ateratzeko ardura eta dirua batzeko. Ekimenak ere egin dituzte lodosarrek, berbarako, iragan otsailaren 5eko jaialdia, Santa Ageda egunez. Ikastolaren 25. urteurrena ospa-

tzeko jaialdia zabaldu eta festa handia antolatu zuten, ahalik eta jende eta elkartasan gehien batzeko asmoz. Eta oraindino badago diru ekarpenak egiterik, denak ondo hartuko dituzte, seguru. Ondoko kontu korrontean egin daitezke: 3035 0153 46 1531026051. Euskal Herritarren konpromisoari esker eta euren lan handiaz, izan dadila gutxienez beste 25 urtez! o

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



KATALOGOA GETXOKO SALTOKIETAN

Katalogoan agertzen diren produktuak Getxoko saltoki hauetan aurki ditzakezue.

- AIBOA LIBURU-DENDA
- BOLIBAR ELORDUI LIBURU-DENDA
- COSAS LIBURU-DENDA
- ELO LIBURU-DENDA
- GAIK LIBURU-DENDA
- GOBELAURRE LIBURU-DENDA•PAPER-DENDA
- ITXAS-IKUS
- ITZIAR LIBURU-DENDA
- LA GUSANA LIBURU-DENDA
- LA REVISTA
- LAS ACACIAS LIBURU-DENDA
- LOPEZ LIBURU-DENDA
- MAYOR 29 LIBURU-DENDA
- NADAL LIBURU-DENDA
- NEGURI LIBURU-DENDA
- NORAY LIBURU-DENDA•PAPER-DENDA
- ORIXA LIBURU-DENDA
- SAN JOSE LIBURU-DENDA•TABAKO-DENDA
- S. JUAN NEPOMUCENO NAUTIKA LIBURU-DENDA
- TROA LIBURU-DENDA
- ZUGATZARTE LIBURU-DENDA

www.katalogoa.org
www.getxo.net



“Gizonak ez badira emakumeon eremuetara sartzen, gauzak ez dira lar aldatuko”

Lur Moragues Saitua > Bilgune Feministako kidea

Abornikanon (Araba) jaiotakoa, baina 11 urtegetaz getxoztartetakoa, Algortako mugimendu feministaren aurpegi ezagunetakoa dugu Lur Moragues Bilgune Feministako kidea. ‘Sastraka anti-sexista’ taldeak antolatutako ekintzetan izan zuen bere lehen harremana feminismoagaz: “Txikitan genero-berdintasunean bizi garela irakasten digute, baina gero konturatu nintzen hori ez dela horrela, berdintasun hori faltsua dela; kontzientzia hartu nuen”. 20 bat urtegetaz Bilgunen militatzen hasi, eta geroztik konpromisoari eutsi dio 28 urteko feministak: “Hori bai, intentsitate ezberdinagaz, korrontearen kontra ibiltzeak jendea erretzen baitu”. Martxoaren 8a heldu, eta hara, militante feministak agertzen dira han eta hemen; hedabide, erakunde eta herritarrek euren burua morez janzten dute: “Egum bat baino askoz gehiago da, baina aldaketa gauzatzeko borondatea izatea beharrezkoa da”. Bere ustez, oraindino badago zer borrokatu, ez dago dana lortuta: “Emakumeok gizonen eremuetan sartu gara, baina gizonak ez badira emakumeon eremuetan sartzen, gauzak ez dira lar aldatuko”. Feminismoan militatzeaz gain, Moragues herrigintzaren beste saltsa batzuetan ere badabil, parte-hartzean oinarritutako Getxoberpiztu! egitasmoan kasu. “Pozik gaude jendeak parte hartu duelako. Izan ere, ez gaude ohituta parte-hartzerara, kultura hori galdu da...” ...berreskuratu arte! ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Punta Begoña “publikoarentzat”

Azkenean luxuzko hotelik ez dute egingo Punta Begoñako galerietan; kontrara, eraikuntza “publikoarentzat eta turismoarentzat” berreskuratuko ei dute

Barcelo enpresak ez du hotelik egingo Punta Begoñako galerietan, proiektua gauzatzea ekonomikoki bideraezina zaiolako. Gauzak horrela, Udalak ziurtatu du “publikoarentzat eta turismoarentzat” berreskuratuko dituela, Barceloren eta Bizkaiko Aldundiaren diruagaz. Halere, erabaki behar da etorkizuneko erabilera zehatza.

Luxuzko hotelik ez dute eraikiko Punta Begoñako galerietan. Barcelo enpresak atzera egin du, proiektua ekonomikoki bideraezina zaiolako. Hasierako kostua handitu egin zen; batetik, ondare direnez, babeserako neurri zehatzak dituztelako eta, bestetik, oso hondatuta daudelako. Baina atzera egiteagaz batera, Getxoko Udalgaz akordioa lortu du Barcelok.

Imanol Landa alkateak adierazi duenez, prozesu judiziala denboran gehiegi luzatuko litzateke eta, epaia Udalaren kontra gertatuz gero, milioi bat euroko kostua eragingo lioke. Horregatik egin dute akordioa. Ondorioz, Barcelok 1,2 euro emango du. Diru hori galeriak eraberritzeko erabiliko dute, Bizkaiko Aldundiak emango duen beste bi milioi euroguz batera.

Erabarritu ostean, “publikoari eta turismoari” begira zabalduko dituzte, Getxoko alkatearen arabera, baina oraindino ez dute argitu zehazki zer erabilera emango dieten galeriei: “Lehen mailako turismo-



Aurten lan txikiak egiten hasiko dira galerietan

baliabide bihurtuko dira; hiritarrek gozatzeko espazio publikoa izango dira”.

Berreskuratze-lanek aurten hasiko dituzte, lan txikiak halere. Izan ere, Joseba Arregi Hirigintza arduradunaren arabera, ez dago eraisteko arriskurik, bai,

Aldundiak milioi bi euro inbertituko du galerietan, zer erabilpen emango zaien erabakitzeke dago

ordea, osagaien bat erortzeko. Beraz, eraikina finkatuko dute lehenik baina, hortik aurrera, ez dakite zertan gauzatuiko den egitasmoa. Alkateak dioenez, atea zabalik dago zein erabilpen emango zaien hausnartzeko.

Ildo horretan, hurrengo urratsa izango da proiektua osatzea, bai galeriak

berreskuratzeke, bai zer hartuko duten iradokitzeke. Beraz, prozesua luze joango da eta ezin jakin noiz zabalduko duten eraikina.

Getxoko Udalak eta Barcelo enpresak 2007an hitzartu zuten galerietan bost izarrerako hotela eraikitzea. Handik urte bira, Barcelok oinarritzeko proiektua aurkeztu zion Bizkaiko Aldundiari. Hark egitasmoa onartu, baina zenbait baldintza ipini zizkion. Horretaz gain, arkitektura-balioa babesteko eskatu zuen iaz Aldundiak. Azkenean, bertan behera lotu da proiektua.

Herritar guztiak ez dira ados egon hotelaren egitasmoagaz eta, hasieratik, eskatu dute galeriak getxoztarrentzako erabilgarri izatea. Erabilpen hori zertan egikaritu erabaki behar da orain. ○

Azkorrirako bidegorriari

alternatiba bi aurkeztu dizkiote auzokideek



Nahikoa arazo sortu dira Zientzoetxeko bidegorrian, errepidea oso estua da-eta

Azkorriko hondartzara bizikletaz joatea ez da batere erraza izan aurtengo udan ere. Bidegorriak errepidearen zati handi bat hartzen du eta errepidea norantza bikoa da. Bidegorriagaz estutu egin da eta, autobus batek eta auto batek alkarren parean igaro behar dutenean, bidegorria zapaldu behar dute, txirrindularientzako arriskua eraginez.

Horregatik eta beste traba batzuegatik, Andra Mariko auzokideak ez zeuden pozik bidegorriagaz. Horren aurrean, Andra Mariko Auzokideen Elkarteak alternatibak hausnartzen hasi zen Bildu alderdiagaz batera, eta azkenean, proposamen bi aurkeztu dute, ingurugiroaren errespetuan oinarrituta.

Lehen bidea Aixerrostatik abiatzen da. Galeako farorako bideari paralelo eta,

ondoren, oinezkoentzako bidearen aldamenean doa hondartzaraino. Babestutako gunean igaroko litzatekeenez, ekologia-arazoak saihesteko neurriak hartzeko proposatu dute.

Bigarren alternatibak hasierako ibilbide bera planteatzen du baina, golfaren sarrerara iristean, Goienetxe estartatik sartuko litzateke antzinako kuarteleraino, eta handik hondartzara.

Bidea egiteko asfalto erabili beharrean, zapalduko hondarra erabiltzea proposatu dute, eta ez lukete ipiniko argiztapen artifizialik, hori dena aipatu ekologia-arazoak ekiditeko: “*dagoen bidea baliatu eta ia eraginik ez luke izango babestutako natura-ingurunean*”. Hortaz, bidegorria beharrean, bide-berdea sortuko lukete bizikletentzako. ○

MAIA EGUTEGIA EKIMENA ABIATU DUTE

Euskara Zerbitzuak eta Immigrazio Unitateak martxan ipini dute Maia Egutegia ekimena. Ikuspegi interkulturaletik jorratuko dute, “*udalerrian bizikidetzatza, euskara eta euskal kulturara bizilagun guztiak hurbiltzeko*” asmoz. Hiru proiektu sustatuko dute, auzokideek proposatutakoekin artean. Pertsona fisikoek, irabazi-asmo bako erakundeek edo euskal kultura eta hizkuntza sustatzeko edo immigrazio alorrera, bizikidetzara eta interkulturalitatera zuzendutako elkarteek parte har dezakete. Hautatutako proiektu bakoitza garatzeko 2.000 euroguz lagunduko dute. Kultur jardueren baten ospakizunean aurkeztuko dituzte.

Info+: www.getxo.net

GETXON BIZI PROGRAMA MARTXAN DA

Bizilekua Getxon finkatu barri duten atzerritarrei zuzendutako udal-programa da *Getxon bizi* eta aurten ere tailer eskaintza zabalduko dute; Munduko Medikuek elkarteak gidatuko ditu. Lau gai jorratuko dute: emakumeak eta internet, elikadura eta sukaldaritza, norberaren zaintza eta komunikazioa. Urrira arte luzatuko dira eta domekataran egingo dituzte, 10:00etatik 14:00etara. Elikadurari buruzkoa otsailan abiatu dute. Izena eman behar da Herritarrak Artatzeko Bulegoetan.

Info+: www.getxo.net

IZENA EMAN DEZAKEZU GURASOEN TOPAKETAN

Aisibizia elkarteak Gurasoentzako Topaketa egingo du eta hitzaldia eskainiko du: “*Berdintasunean hezitu*” lelopean. Zehazki sare sozialak eta gazteen arteko harremanez hausnartuko dute. Parte hartu gura duten gurasoek izena eman dezakete martxoaren 12ra arte. Horretarako mezua bidali aisibizia2@gmail.com helbidera edo ondoko telefonora dei dezakete: 660 202 438 (Eneritz).

Izen-ematea: aisibizia2@gmail.com
edo 660202438 (Eneritz)

naturlan

Lorezaintza zerbiztu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorroteños “Amumak”

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algorotako izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorota.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileeta kalea 1 • ALGORTA

Iker Blas eta Joanes Atxa > akordeoilariak

“Piezak ondo prestatuta geneuzkan, baina inoiz ez da jakiten zer gertatuko den”



Iker eta Joanes, Musika Eskolako gelan

Arrasateko akordeoi lehiaketan parte hartu zuten abenduan Iker Blas, Joanes Atxak eta Asier Gilek, beren-beregi, Gipuzkoako XXIV. Jaialdian. Eta ez zuten txarto egin; zilarrezko dominak irabazi zituzten, bakoitzak bere mailan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan ikasten dute akordeoia Rafa Burguera irakasleagaz. Bertara hurreratu gara akordeoilari gazteak egon guran, eta Iker Blas eta Joanes Atxagaz solas egin dugu, baita euren irakasleagaz ere. Ikasle finak ei dira eta datorren urtean Arrasatera bueltatzeko asmoa daukate.

—Kontaguzue, zertan datza Arrasateko lehiaketa?

—(J) Lehiaketa arrunta da, abenduko lehen asteburuan egiten da eta sariak egunean bertan ematen dituzte. Lau maila dago, adinaren arabera banatuta. Iker eta biok 12 urte arteko mailan aritu gara, Asier, barriz, 15 urte artekoan.

—(R) Atal bi prestatu behar dute: bate-tik, lehiaketak proposatutako pieza bat jo behar dute eta, bestetik, minutu batzuk daukate gura dutena jotzeko.

—Eta zilarrezko domina eskuratu zenu-

ten, baina guztiek daukate saria, ezta?

—(R) Bai, parte hartzen duten guztientzako saria dago eta, horiez aparte, urre, zilar eta brontzezko dominak ematen dituzte maila bakoitzean. Ez dakizu zenbat lan egiten duten!

—Hori da, entsegu asko egin duzue?

—(I) Bai, normalean baino gehiago; nik egunero ordu erdi jotzen nuen eta normalean ez daukat hainbeste denborarik.

—(R) Joan den ikasturte akabuan prestatzen hasi ginen, lehiaketan parte hartzea erabaki genuenean.

—Lehenengoz parte hartu duzue?

—(R) Hauek biek bai, Asierrek ez. Jende askok parte hartzen du eta normalean gipuzkoarrak izaten dira. Maila ona dago. Ondo jo beharra dago parte hartzeko.

«Lehiaketak positiboak dira, nork bere mailaren kontzientzia hartzeko»

—Lehendik ohituta zaudete jendurrean jotzen, baina epaimahaiaren aurrean?

—(J) Musika Eskolan emanaldiak egiten ditugu, baina Arrasaten aurrez aurre zeuden lau pertsona gu aztertzen, eta nahiko urduri geunden, desberdina da.

—(R) Akordeoilariak dira, gu bezala, ez dira piano-jotzaileak eta horrelakoak: ondo ezagutzen dute gure musika-tresna. —(I) Nik beste musikari batzuek ere jotzen dut eskolan, eta Joanesek eta besteek hemendik kanpora kalejirak egiten dituzte, Santa Agedan eta horrelakoetan.

—Baina dominagaz pozik, ezta?

—(J) Pozik, bai. Ondo prestatuta geneukan, baina inoiz ez da jakiten zer gertatuko den. Nik ez nuen entzun gura nire izena urrezko domina atera arte, baina zilarrezkoagaz ere oso pozik.

—Saio ona egiteko, zer behar da?

—(I) Rafak dioen bezala, ondo hasi behar da eta hobeto amaitu!

—Rafa, zure ustez positiboak dira horrelako lehiaketak?

—(R) Oso positiboak: nola jotzen duten antzematen dute, besteakaz konparatuta zer maila daukaten kontzientzia hartzen dute eta hori oso lagungarria da.

—Zer asmo daukazue etorkizunerako, lanean jarraitzea, ezta?

—(J) Ni kontserbatorioan sartzan ahaleginduko naiz laster, leku gutxi daukate eta oso ondo jo behar da plaza lortzeko. ○

Emakumeen eskubideen

alde hainbat ekintza antolatu dute martxoaren 8aren bueltan



Mobilizazioa deitu du Agortako Bilgune Feministak martxoaren 8rako, 19:30ean, Geltokia plazan

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta hainbat ekintza antolatu dute Getxon. Hasteko, martxoaren 5ean, Nekane Juradok hitzaldia emango du Villamonteko kultur etxean, 19:00etan: *Emakumeen bazterketa sozio-ekonomikoa: kristalezko sapaia aztertzen*. Martxoaren 6tik 27ra erakusketa izango da Torre aretoan, Algortan: *Elkarrekiko mendekatasunak: etxeko langileak eta zaintzaren krisia* da izenburua.

Hilaren 7an, mahaingurua egingo dute emakumeak eta lan arloari buruz, hori ere Villamonten eta 19:00etan. Martxoaren 13an, *emakumeak arte esze-*

nikoetan ikerlanaren aurkezpen antzeztua izango da, leku eta ordu berean. Eta hilaren 18an, *La 52* lana antzeztuko du Tirante Plataformak Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, 19:30ean; 5 euro ordaindu beharko da sarrera.

Bestalde, Bilgune Feministak kontzentrazioa deitu du martxoaren 8rako, Algortako Geltokia plazan eta 19:30ean. Gainera, hilaren 10ean bizikleta-martxa antolatu dute eskualdean Algortako zein Leioako Bilgune Feminista taldeek, eta Itzabaltzetako zein Erandioko emakumeen asanbladek. Sopolako udaletxetik abiatuko da goizeko 10:30ean. ○

GURASOEK ERE EUSKARA PRAKTIKATU

Euskara hobetzeko denborarik ez daukazu? Seme-alabak zaindu behar dituzu eta praktikatzeko eta hizkuntza maila hobetzeko tarterik ez daukazu? Lasai egon, Getxon badaukazu-eta hainbat aukera, izan ere, Gurasolagun talde barriak antolatu gura dituzte Faduran, Gobelan zein Areetako musika-eskolan, umeen zain egon bitartean, euskara praktikatzeko. Baina oraindino ikasi barik zaude? Getxoko Udalak diru-laguntzak ematen dizkie euskara ikasi gura duten gurasoei. Informazio gehiago Egizu taldeak eskainiko dizu.

Info+: www.egizu.org eta 685 732 963

MARTXOAN ERE KONTZERTU KLASIKOAK

Hil honetan ere jarraituko dute musika kontzertu klasikoak Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Hiru emanaldi izango dira, zapatuetan. Lehena hilaren 3an izango da: Judith Jauregi piano-jotzailea ariko da taula gainean eta 8 euro ordaindu beharko da sarrera. Bigarrena martxoaren 10ean izango da, Sevillako Orkestra Barrokoa arituko da eta 10 euro kobratuko dute sarrera. Azken emanaldia hilaren 17an izango da eta Quatuor Schumann taldeak joko du; oraingoan 8 euro ordaindu beharko da sarrera. Kontzertu guztiak hasiko dira 19:30ean eta hiruzentzako abonua eros daiteke 20 eurotan.

BERTSOLARI FILMA ZINEMA PARADISON

Martxoaren 9an hitzordu polita daukate bertso-zaleek Areetan. Baina ez da ohiko bertso-saio baterako, *Bertsolari* filma ikusteko baizik. Andres Isasi Musika Eskolan emango dute pelikula Zinema Paradiso ekimenaren barruan, 21:00etan; jatorrizko bertsioa eskainiko dute, baina azpittuluakaz, ez-euskaldunek ere ulertzeko moduan. Ohi bezala, 2,90 euro kobratuko dute sarrera eta, proiektzio ostean, solasaldia egingo dute Asier Altuna filmaren zuzendariagaz.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Presoen aldeko Elkartasun Eguna > talde sustatzailea

“Pauso guztiak dira garrantzitsuak presoen eskubideen alde, nork bere alorrean egingo du ekarpena”

Martxoaren 10ean presoen eskubideen aldeko Elkartasun Eguna egingo dute Leioan, Pausutxu bet aurrera lelopean. Herritarrek osatuko dute egitaraua, bakoitzak bere alorrean ekarpena eginez.

—Laster izango da Elkartasun Eguna, zein asmoz antolatzen ari zarete?

—Asmoa da herritarrek eta herriko eragileak inplikatzeko euskal presoen eskubideen alde. Bilbon urtarileko manifestazioan irudikatu zena Leioara ekartzea da asmoa. Lekua eta azpiegitura ipini dugu euren esku, bakoitzak bere alorrean egin dezan gura duena. Horregatik da leloa *pausutxu bet*, pauso denak garrantzitsuak direlako, handiak zein txikiak; bakoitzak ekarpena egingo du gauzak antolatuz, atxikimendua emanez, lasterketa eta horrelakoetan parte hartuz, ikuskizunak ikustera joanez e.a.

—**Dagoeneko zer gauza iragar daiteke?**

—Goizean hainbat ekintza egongo da. Kirolariek herri-lasterketa antolatu dute: helburua ez da izango irabaztea, jendeak parte hartzea baizik. Nagusiek zazpi kilometro korrituko dute eta umeek lau; bidean ekimenak egingo dituzte herriko kirolariek. Horrela, herrira zabalduko



Info+: www.pausotxubet.tk/index.php eta facebook: Pausotxubet

dugu Elkartasun Eguna, gainontzeko ekitaldiak Anbulategiko plazan izango dira eta. Han jokatu da futbito-txapelketa finala eta beste hainbat gauza izango da: herriko artisauek azoka egingo dute, txikiteroek eta herriko koroetako hainbat lagunak abestuko du, eta txistulariak herrian ibiliko dira. Gainera, Kuko eta Truko pailazoen *Magic Clown* ikuskizuna estreinatuko dute: umeentzako da, baina nagusiek ere ederto pasako dute. Umeen-

tzako puzgarriak eta tailerrak ere egongo dira. Bestalde, konfirmatzeke dago apustu bat: Peruriko astoak Goierriko lagunenen aurka. Gainera, kale animazioa egongo da herria girotzeko.

—**Hori dena goizean, eta ondoren?**

—Ondoren, herri-bazkaria 200 lagunentzat, mus-txapelketa, kale-animazioa eta kontzertuak: Basaki taldeak joko du, Elkartasun Eguneke abestiaren sortzaileak, eta erromeria ere izango da. o

Bulebarreko aterpea

handituko dute, beste alde bat atxikituko diote, oraingo **tamaina bikoiztuz**



Herriko merkatarien azoka egiteko estalki gisa erabiltzen da aterpea

Leku hotza da Leioako Bulebarra: haize handia dabil eta ia gehiena estali barik dago. Baina, hemendik aurrera, aterpe handiagoa izango du. Gaur egun, 442 metro koadro hartzen du aterpeak baina, lanak amaitutakoan, 1.092 metro koadro neurtuko du. Guztira, 7.500 metro koadro dauka Bulebarra. Aterpea handitzeko laster abiatuko dituzte lanak eta lau hilabete iraungo dute.

Udalak jakinarazi duenez, egun estalita dagoen guneari beste elementu bat gehituko zaio albo batean. Elementu hori “*irekia, arina eta aurreko eraikinarekin errespetu osoz*” egingo dute. Beraz, aterpearen aldeak bata bestearengandik independenteak izango dira, baina nort-

sun bera izango dute eta albo batetik lotuko dituzte. Egungo aterpea bezala, Iñaki Aurrekoetxea arkitektoak diseinatu du alde barria.

Oraingo aterpea 85 metro luze eta sei metro zabal da; zehazki, estalitako gunea lau metro zabal da. Gunea handiagoa izango denez, hainbat ekintza garatzeko aukera eskainiko duela iragarri du Udalak. Berbarako, herriko merkatariek azoka egiteko erabiltzen dute urtean bitan, eta hainbat nekazal eta artisautza-azoka egiten da bertan. Bulebarra 1990ean eraiki zuten, 300 metro luze da, eta beste 25 metro zabal: guztira, 7.500 metro koadro. Egitasmo barri honetan 196.942,61 euro inbertituko dute. o

EMAKUMEAREN EGUNA, EKINTZA UGARI

Martxoaren 8aren inguruan hainbat ekintza antolatu dituzte Andreak elkarteak eta Bilgune Feministak. Andreak taldeak, besteak beste, antzerkia antolatu du martxoaren 7rako Kultur Leioan, 19:00etan; hilaren 8an, barriz, kontzentrazioa egingo du Bulebarrean, 13:30ean. Bilgune Feministak, bere aldetik, arrastiko 20:00etarako deitu du kontzentrazioa, hori ere martxoaren 8an eta Bulebarrean. Egun horretan erakutsiko dituzte II. Argazki Lehiaketaren irudiak eta saria emango dute (leioakobilgunefeminista@hotmail.com helbidera bidal daitezke irudiak). Gainera, norma-irudi herrikoa egingo dute 9an.

KAFKA ETA PANPIN BIDAIRIA ANTZEZLANA

Martxoaren 4an, domeka, *Kafka eta panpin bidairia* antzeztuko du Tanttaka taldeak Kultur Leioan: “*Franz Kafkak neskato bat aurkitu zuen negar batean, panpina galdu zuelako. Umea lasaitu nahian, istorio berezi bat asmatu zuen: panpina bidaiari joana zen, eta bera, panpinaren postaria zenez, gutunak eroan zizkion neskatoari hiru astez*”. Jordi Serra i Fabraren lana da eta Fernando Bernuesek zuzentzen du; aktoreak dira Jose Ramon Soroiz, Aitziber Garmendia eta Ainara Ortega. Emanaldia 18:00etan hasiko da eta 5 euro ordaindu beharko da sarrera.

DANTZA ZIRKUITUA ABIATUKO DUTE 9AN

Aurtengo Dantza Zirkuitua Andaluziako talde batek abiatuko du martxoaren 9an: Choni flamenko-taldeak eskainiko du *La gloria de mi mare*. Emanaldia 20:30ean hasiko da eta 12 euro ordaindu behar da sarrera. Martxoaren 11n, barriz, Eliradi euskal taldeak *Ninika* eskainiko du 18:00etan; 5 euro ordaindu beharko da. Martxoan eta apirilean beste hainbat lan ikusi ahalko da Dantza Zirkuitu barruan.

Info+: www.kulturleioa.net

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Virginia Imaz > clown, ipuin-kontalari, antzerki-zuzendari eta idazlea, besteak beste

“Gizarte honetan zaila da emakumeak ondo egotea: mina, batzuetan, emakume izateagatik daukagu”

Martxoaren 8a gertu dago, Emakumearen Nazioarteko Eguna. Erandion ekintzak antolatu dituzte, bai Berdintasun zerbitzuak, bai emakume-taldeek. Hilaren 7an, hitzaldia egingo dute Altzagako Azoka Zaharrean, eta jarraian eskainiko du emanaldia Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko kideak.

—*Molestias clownicas* bakarriketa egingo duzu martxoaren 8agaz lotuta.

—Emakumearen eta osasunaren arteko harremanaz dihardu. Parodia egiten dut, berbarako, kafe-zaletasunari buruz: gurea urduritasuna dela esango digute. Emakumeok batzuetan gaixo gaude, baina ez dakigu non daukagu mina: Gizarte honetan zaila da emakumeak ondo egotea, mina, emakume izateagatik daukagu-eta. Dieta, itxura edota ginekologari bisitei buruz ere dihardut. Lana oso gertuko da eta ikusleak buru-belarri inplikatzeko dira. Obra aldatuz doa, ni aldatuz noan heinean; kontzientzia feminista aurrera doa, baliabide gehiago daukat hausnartzeko eta nire buruaz barre egiteko.

—Emakumeak bere buruari barre egin behar dio jendarte honetan?

—Munduko gutxiengorik handiena gara emakumeak. Ahotsik ez daukatenen



Martxoaren 7an emanaldia eskainiko du Altzagako Azoka Zaharrean, 19:00etan

ahotsa entzunaraztea dugu xede gure aldean. Kasu honetan, emakumeena. Tentazioa izan daiteke gizonen barre egitea, baina interesgarriagoa gertatzen zait nire buruari barre egitea: nolabait biktimismotik atera, barrearen laguntzagaz. —Urte mordo daroazu zeregin honetan, umeen aurrean ere, baina gisako gaiak nola tratatzen dira euren aurrean? —Ikuskizun guztietan txertatuta dago genero ikuspegia, baina beste gaiak ere lantzen ditugu. Neska-mutilen artean

harremana osasuntsuagoa izan dadin saiatzen gara, eredu hori bultzatzen dugu.

—Irakasteko balio dute bakarriketek?

—Arteak alde pedagogikoa dauka: heziten du. Baloreak transmititzen ditu, batzuetan ados gaude horiekin eta bestetan ez, baina hezten du. Beste alde bat da osasunarekin lotutakoa: sendatzen du. Jendeak barre egiten du gure lanarekin, ikusleak alaiago ateratzen dira emanalditik, arinago, burua kargatu barik. ○

Enpresa-parkea Axpen

Udondo eta Axpe artean **eraikiko dute** enpresa-parkea **300 lantoki hartzeko**



Leioa eta Erandioko lurretan kokatuko da

Leioa eta Erandioko lurretan enpresa-parkea egingo dute, Udondo eta Axpe auzoen arteko mugan. Ekonomia-Jardueren Parkeak 300 enpresarentzako lekua izango du eta hiru urte baino lehen hasiko dira eraikitzen. Dow Chemical lantegia zegoen ordubean egingo dute eta 114.070 metro koadro hartuko du, Udal biek sinatutako hitzarmenari jarraiki.

Haren arabera, Erandiok gidatuko du administrazio-kudeaketa; izan ere, lurren %75 udalerriko Astrabudua auzoan dago. Udalaren asmoa da lanak legealdi honetan hastea, baina horretarako, lurren kalifikazioa aldatu behar dute lehenik,

gaur industria-lurrak baitira.

Hastapen-proiektuaren arabera, parkearen eremurik handiena dorre bik hartuko dute, bata 16 solairutakoa, bestea 26koa; bietan egingo dituzte bulegoak. Industria arloko enpresentzako, barriz, 39.000 metro koadro gordeko dute eta hainbat pabilioi izango ditu. Komertzio-enpresentzako lekua ere egingo dute, baina pabilioi txikiagoetan.

Horiekatz batera, 1.000 autorentzako lekua izango duen aparkalekua eta sarbide barriak egingo dituzte, itsasadarretik zein Astrabudutik. Enpresa-sustatzaileak 21 milioi euro inbertituko du proiektuan. ○

MARTXOAREN 8AN, JAIA ETA ALDARRIKAPENA

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta Erandioko Emakumeen Elkarteak antolatu ditu ekintzak eta mobilizazioak. Hiru egun lehenago hasiko dira ekimenak, martxoaren 5ean: bazkaria egingo dute Obieta jatetxean, 15:00etan (izen-ematea: 946 554 706 eta 688 653 782). Martxoaren 7an, hitzaldia emango du Garbiñe Mendizabal Furundarenak Altzagako Azoka Zaharrean, 18:30ean, eta jarraian, Virginia Imazek eskainiko du *Molestias clownicas* bakarriketa. Martxoaren 8an, kontzentrazioa egingo dute Udaletxe plazan, 12:00etan, eta hilaren 9an, Emakumearen Egunaren aldeko jaia izango da Azoka Zaharrean, 18:30etik aurrera. Bestalde, martxo eta apirilera doako ikastaroa antolatu du Berdintasun zerbitzuak: *Nire zentzumenaren bidez sentituz* Astrabuduan eta Altzagan.

Ikastaroan izen-ematea: 944 175 616 edo berdintasuna@erandioko-udala.net

UDALEKO ZERBITZUEN GIDA BARRIA KALEAN

Etxe guztietara helarazi dute Erandioko Zerbitzuen Gida barria. Udaleko sail guztiei buruzko informazioa eta harremanetarako bideak topatuko dituzu bertan, baita zerbitzu pribatu askori buruzkoa ere; besteak beste, ekipo, jarduera edota administrazio-izapideetan erabiltzen den metodologiari dagokionez.

ERANDIOGOIKOAKO HAURRESKOLA ZABALIK

Dagoeneko umetxoak hasi dira Erandiogoikoako haurreskolan. Oraingoan sei ume dago matrikulatuta, 0-2 urte bitartekoak, baina beste laurentzako lekua ere badago. Erandioko hirugarren haurreskola da eta udalerriko haurreskola sarea osatzera dator. Auzoko eraikin soziokultural barrian egokitu dute, osasun zentroaren alboan. Etorkizunean zahar-etxea ere hartuko du eraikin horrek.

Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

DESKARGATU DOAN EUSKERAZ
www.cianoplan.es/baliabideak

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

PARTE HARTU JAI-BATZORDE HERRIKOIAN!

Negu gorrian hasi behar da udakoa prestatzen. Aurten, Jai-Batzorde herrikoia izango da Sopelan, herriko eragileek eta Udalak osatuta. Baina gura duen edozein koadrilak edo auzokidek ere parte har dezake. Hamabostero batuko dira Kurtzio Kultur Etxean, eguaztenetan. Parte hartu gura baduzu jarri kontaktuan Kultur Etxeagaz, zure ekarpenei harrera egingo diete!

KOMERTZIO TXIKIEN AZOKA ZAIN DUZU!

Sopelako Salerosle Elkarteak antolatuta, dendari eta ostalari azoka izango da martxoaren lehenengo asteburuan, udaletxe plazako karpan. Barikuan 17:30etik 20:30era egongo da aukera erosketak egiteko, zapatuan 11:00etatik 20:30era eta domekan, barriz, 11:00etatik 14:30era.

ITZARTUK X. PINTURA LEHIAKETA ANTOLATU DU

Testu labur eta poesia lehiaketaren ostean, pintura lehiaketaren X. edizioa antolatu du Itzartu taldeak. Margo-lanak aurkezteko epea martxoaren 9an amaituko da, eta Sopelan bizi diren emakumeek bakarrik parte har dezakete. Trukean, txapeldun eta txapeldunordeak 375 eta 275 euroko saria jasoko du.

EMAN IZENA 'OPORRETAN TXANGORA' EGITASMOAN!

Aste Santuko oporretan sei eta 12 urte bitarteko ume sopeloztarrek 'Oporretan txangora' egitasmoan parte hartzeko aukera izango dute. Apirilaren 11, 12 eta 13an hiru txango egingo dituzte Euskal Herriko hiru lekutan, hoguei euroren truke. Martxoaren 9an amaituko da izena emateko epea, eta hainbat bide daude horretarako: Mankomunitatean, e-postaz (euskera5@uribekosta.org) edo fax bidez (94 676 28 72). Ez galdu aukera!

Martxoaren 8a, surf-ean

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, astebeteko **egitarau potoloa** atondu dute



Emakumeen III. Open Surf Txapelketa antolatu dute martxoaren 10ean

Urtero legez, martxoaren 8a heldu eta ekimenak antolatuko dira eskualdean egun hau ospatu eta aldarrikatzeko. Sopelan Emakumearen Astea antolatu dute Udalak, Mankomunitateak eta Itzartuk, martxoaren 5etik 11ra arte.

Helduentzako ipuin-kontalari batek emango dio hasiera asteari, 19:00etan Kurtzion. Hurrengo egunean, Nagusien Etxean tarta lehiaketa egongo da, 18:00etan, eta horren ostean jaitxoia egingo dute. Martxoaren 7an Barrikako emakume taldearen antzerkiak *'Almas ausentes'* antzezlan eskainiko du. Egue-

nean, martxoaren 8an hain zuzen ere, ekitaldia egingo dute Kultur Etxean, 18:00etan. Adierazpenaren irakurketa egin, eta Itzartuk antolatutako lehiaketen sari banaketa egongo da. Ondoren, Xabi Aburruzuga trikitilariak ekitaldia alaituko du. Barikuan mahainguru interesgarria egongo da 19:30ean, emakume eta bertsolaritzaren arteko harremnari buruz. Asteburuan, barriz, emakumeen III. Open Surf txapelketa Arriateran, Itzartu elkartearen bazkaria Artxandan eta umeentzako 'Klik Klak' ipuin-kontalaria antolatu dute. ○

Urtzi Momoitio Zulaika > Meñakoz Kultur-Elkartea

“Euskal Herrian zein munduan interesa duten gaiak herrira ekartzen saiatzen gara”



Aisialdiagaz lotutako jarduerak ere antolatzen ditu Meñakoz Elkarteak

Zamorako apaiz-kartzelari buruzko hitzaldia antolatu du Meñakoz Kultur Elkarteak martxoaren 2an, 19:30ean Kurtzio Kultur Etxean. Azken urteetan hitzaldi, ikastaro eta bestelako ekimenak antolatu dituzte Meñakoz-eko lagunek. —Noiz eta zein helburuz sortu zen Meñakoz Elkarteak?

—2005. urtean sortu zen, eta helburua herrian euskal kultura eta euskal nortasunaren inguruan jendea batzea zen. Lehenengo ekimena aspaldiko partez martxan zegoen talo-tailerra antolatzea izan zen, sortuta zegoen euskal dantza taldea herrira zabaldu... Izan ere, herrian ez dago dantza edo euskal kultura lantzen duen talderik; hutsune hori igarri gendun. Horretaz gain, aukera zegoen interesekoak ziren gaiak herrira ekartzeko, eztabaidarako gunen izan zedin.

—Zer nolako gaien inguruan?

—Gaurkotatuta duten gai sozio-politikoak dira batik bat; internazionalismoagaz lotura dutenak, memoria historikoa-

gaz e.a. Euskal Herrian zein munduan interesgarriak izan daitezkeen gaiak herrira ekartzen saiatzen gara. Eta posible den heinean zine-forum formatua erabili dugu, eztabaida sustatzeko.

«Zine-forum formatua erabiltzen dugu, eztabaida sustatzeko»

—Eta horretaz guztiaz gain bestelakoak ere antolatu dituzue...

—Nagusien dantza-taldea handitu da pilo bat, umeen dantza ikastaroa sortu dugu (Eguzki-lore), oso arrakastatsuak izan diren talo-ikastaroak, urteroko txangoa sagardotegira e.a. Eta orain urtebete familia-arteko berbalagun-taldea sortu zen guraso eta umeakaz.

—Etorkizunerako erronkarik?

—Memoria historikoaren ildoari tiraka, piztu zaigu agian erronka bat: Nikola Telleriaren akuiluari eutsiz, Sopelako memoria sozio-politikoak batu eta zabaltea; hor daukagun asmo potoloa da! ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (n° col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!


Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

ANDER DEVNA iKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Felix Lareki > PROMusic taldea

“Ez dago ohitura handirik ‘musika-handia’ entzuteko; apaltasunez, hutsune hori bete gura dugu”

Musika klasikoa berangozarrei hurreratzeko asmoz sortu zen abenduan PROMusic taldea. Felix Lareki da bertako sustatzailea, eta hilean behin bideo-entzunaldiak antolatzen dituzte Berangoetan.

—PROMusic taldea sortu barri duzue, zein helburugaz?

—‘Bariku musikalak’ antolatzen hasi gara hileko hirugarren barikuetan, Berangoeta Kultur Etxean. Bertan, bideo-entzunaldiak eskaintzen ditugu; hau da, bideoen laguntzagaz musika jartzen dugu. Zerbait interaktiboa izatea gura dugu, asmoa ez da jendeari matraka emotea. Ez dugu inoiz orkestra baten bideoa osorik jartzen, ohituta ez dagoen jendearentzat kantsagarria izan daitekeelako.

—Eta zein motatako musika jartzen duzue?

—Proiektuan ‘musika-handia’ jorratzen dugu, gure ustez, herria ez dagoelako oso ohituta ‘musika handia’ entzutera. Ez dago ohitura handirik orkestra-emanaldietara joateko, eta gauza bera abesbatza kontzertu sinfonikoakaz, tenor handiakaz e.a. Badago musika-estilo hau ezagutzeko aukerarik izan ez duen jendea, eta guk, apaltasunez bada ere, hutsune hori bete gura dugu. Orkestra handiak hurreratu



Bost lagunek osatzen du PROMusic taldea

gura dizkiegu berangozarrei: Berlineko filarmonikoa, Donostiako Orfeoia, Placido Domingo edo Carreras bezalako tenoreak e.a.

—Eta momentuz zelan erantzun dute berangozarrek?

—Abenduan gure lehenengo emanaldia antolatu gendun, urte barriko gala, eta 70 lagun baino gehiago batu ginen Berangoetan. Urtarrilean, barriz, Luciano Pavarottiri omenalditxo xumea prestatu

genion, gutxietsita egon zen tenorea izan zelako. Kultur Etxea txiki lotu eta ehun pertsona baino gehiago alkartu ginen. Jendea inguruko herrietatik ere etorri zen. Interesa piztea lortu dugu, eta oso pozik gaude!

—Zeri buruzkoak izango dira hurrengo bideo-entzunaldiak?

—Martxoaren 16an zarzuelari eskainiko diogu, eta apirilaren 20an, barriz, Alfredo Kraus tenoreari. ○

Lemoizen ere euskaraz!

Lemoizko Udalak herritarrak euskaraz bizi daitezen abiatu barri du kanpaina



Gaztetxoenei, batez ere, zuzendutako kanpaina da

“Lemoiz euskeraz” da Lemoizko Udalak euskara bultzatzeko abiatutako ekimen-sorta. Unai Andreak alkatearen esanetan “Lemoizek kanpainaren bidez euskararen aldeko konpromisoa berretsi gura du”. Kanpainak hiru helburu nagusi ditu: alde batetik, euskara gizarteratzea; beste alde batetik, hura gorde; eta azkenik, Lemoizeko baserriar eta arrantzaleek mendeetan erabilitako hitzak aditzera eman, eta horien erabilera zabaltzea. Izan ere, asko dira herriko hitzak ezagutzen ez dituztenak, batez ere, Lemoizeko gazteek.

Bestalde, Udalak “Bazkalosteak” deitutako ekimena martxan jarriko du; bazkaldu ondoren, herriko eskolan ikasten duten umeak euskaraz jolas daitezten. Bestelako euskarazko haur-ekintza ere nabarmen handituko da herrian; hala, lemoiztarrek euskara hutsezko eskaintza zabala izango dute. Alkateak adierazi

duenez, “ez dugu gura kanpaina eslogan erakargarri eta hutsean lotzea. Gure asmoa harago joatea da, lemoiztarrek euskaraz bizi daitezen, eta euren errealitatea eta esperientziak euskaraz parteka ditzaten”.

“Lemoiztarrek euskaraz bizi daitezen dugu helburu”

Horrez gain, Andreakaren hitzetan, kanpaina apurka-apurka luzatzen joango da, eta hasieran egindako ekimenei beste batzuk gehituko zaizkio. Momentuz, baina, kanpainari hasiera emateko herriko dendetan pegatinak jarri dituzte; horrela, herritarrak euskaraz erostera bultzatzeko asmoagaz. Alkateak azaldu duenez, gaztetxoenei, batik bat, zuzendutako kanpaina da honakoa, izan ere, gazteen esku egongo ei da Lemoiz bihar herri euskalduna izatea.○

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itzazantzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

PLENTZIAN NOIR ARGAZKI LEHIAKETA MARTXAN

Argazki kamera eskuan hartu eta Plentzian dagoen aurpegiarik eta beltzena topatzea ezinbestekoa da Noir argazki lehiaketan irabazle izateko. Lehiaketaren saria 150 euro dira. Horrez gain, Mikrofilmek irabazlearen argazkia helburu komertzialakaz erabili ahalko du. Lana bidaltzeko azken eguna martxoaren 20a izango da; parte hartzaileek hurrengo helbide honetara bidali beharko dituzte euren argazkiak: mikrofilmfestival@gmail.com. Hortaz, argazkigintza gustatzen baldin bazaizu hor daukazu aukera zeure talentua erakusteko!

HAMAIIKA FILMAGAZ GOZATZEKO AUKERA URDULIZEN

Martxoan film eskaintza zabala izango da; izan ere, martxoaren 3an hasita 31ra pelikula asko izango dira ikusgai. Aipagarria da *Aitona zombia naiz* euskarazko filma. Hauxe martxoaren 3an 18:00ean ikusgai izango da. Horrez gain, bestelako film batzuk izango dira: *War Horse* edo *Muppets* berbarako. Martxoaren 8an *Mis tardes con Margueritte* ikusteko beta izango dute urduliztarrek. Baina ez bakarrik pelikulak, antzerkiak ere lekua izango du Urdulizen martxoan; horrela, martxoaren 2an Itxartu Antzerki taldeak antolatuta *La 5ª planta* obra ikusgai egongo da. Horratz, txiki zein nagusientzako aukerak.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Mankomunitatea

Moreak hartuko ditu Urduliz, Barrika, Plentzia, Gorliz baita Lemoiz ere



Martxoaren 8aren harira, Urdulizen "Mis tardes con Margueritte" ikusgai

Martxoaren 8a dela-eta, ekimen ugari antolatu dute gurean barrena, batzuk aldarrikapenez josita; beste batzuk ordea, jai-giroan. Hori bai, ekimen guztietan emakumeak izango dira protagonistak; emakumeak bilakatu baitituzte ardatz beraien egunean.

Urdulizen, berbarako, bertako Kultur Aretoan filma emango dute, ondoren, deklarazio irakurketa egingo dute. Hurrengo egunean, barriz, zapatuan emakumeen bazkaria izango da herrian. Lemoizen ere, hainbat ekintza antolatuko dituzte; horien artean, Euskal Herriko mugimendu feministaren historia kartel-erakusketa bidez azalduko dute. Erakusketa hori asteen zehar Arminztako kultur gunean izango da eta martxoaren 8an Urizar auzoan. Gainera, martxoaren 8an ere, horren inguruko hitzaldia izango da bertan. Eta Lemoize-tik Barrikarako bidea hartu beharko

dugu; izan ere, emakume langilearen egunean emakumeen elkarrekin erakusketa antolatu dute Goierriko lokalean. Horrez gain, hurrengo egunetan helduentzako ipuin-kontaketa antolatzeko asmoa dute. Plentzian, barriz, 8an bertan tortila eta pastel lehiaketak antolatu

Lemoizen Euskal Herriko feminismoaren kartel-erakusketa izango da

dituzte Batzokian. Eta 8aren harira, martxoaren 10ean bazkaria eta dantzaldi-gaz gozatzeko beta izango dute Plentziako emakumeek. Plan hauek kontentzitu ezean, igandean eta urtero legez martxoaren 10ean Uribe Kostako III. mendi ibilbidea antolatu dute. Ibilbidea Gorliz hasi, eta Sopolako hondartzan amaituko da. Hortaz, ugariak dira egun hori ospatzeko bideak. ○

Ots. 27 - Mar. 12

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA
▶ **Matxitxakoko bataila, 75. urteurrena.** Plasentia-Butroe museoan.
▶ **Iñaki Olabarrieta eta Josu Hormazaren margolanak.** Martxoaren 15 arte. Goñi Portalen. Doan.

GETXO
▶ **Etxeko langileak eta zaintzaren krisia.** Martxoaren 27 arte. Algortako Torrene aretoan. Doan.

ZINEMA

GETXO
▶ **El perfecto anfitrión.** Martxoak 2, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.
▶ **Malutatxo.** Martxoak 4, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.
▶ **Bertsolari.** Martxoak 9, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.

SOPELA
▶ **Film laburra: Entre interiores.** Martxoak 3, 19:30ean. Sekeko gaztetxean.

URDULIZ
▶ **Zineforuma: Mis tardes con Margueritte.** Martxoak 8, 18:00etan. Kultur Etxean.

ANTZERKIA

LEIOA
▶ **Kafka eta panpin bidaia.** Martxoak 4, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.
▶ **La gloria de mi mare.** Martxoak 9, 20:30ean. Kultur Leioan. 12 euro.

Hildakoen omenez plakak daude Plentzia eta Armintzako portuetan

Omenaldia
Matxitxakoko guduan hildakoei gorazarrea
1937ko martxoaren 5ean izango da Matxitxakoko gudua 75. urteurrena. Euzkadiko Gudu-ontzien borrokaldirik ezagunena izan zuten Canarias gurutzetara frankistaren aurka. Hamarnaka lagun hil zen eta 75 urte beranduago, omenaldi berezia egingo diete Armintzako portuan, arrastiko 17:00etan: lore-eskaintza izango da, itsasontzien kanpai-hotsek lagunduta. Ildo berean, gaiari buruzko erakusketa ikus daiteke Plentziako Plasentia de Butron Museoan, "Sopela, Barrika, Gorliz, Plentzia eta Lemoizko itsasgudarien ausardiari gorazarre egiteko". Inaugurazioan batailan parte hartu zuten gudariaren senideen ahotik entzun ahal izan zituzten borrokaldiraren pasarteak.

• **Non:** Armintzako portuan • **Noiz:** Martxoaren 5ean, 17:00etan

▶ **Ninika, dantza ikuskizuna.** Martxoak 11, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.
▶ **Jugando.** Martxoak 7, 19:00etan. Kultur Leioan. 3 euro.

SOPELA
▶ **Arratoitxo pinpirina.** Martxoak 4, 18:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 3 euro.
▶ **Ipuin kontaketa: Emakumeak munduan.** Martxoak 5, 19:00etan. Kurtzio Kultur Etxean.

▶ **Almas ausentes.** Martxoak 7, 19:30ean. Kurtzio Kultur Etxean.
▶ **Umeentzako ipuin kontalaria.** Martxoak 11, 17:30ean. Kurtzion.

ERADIO
▶ **La chispa de la vida.** Martxoak 4, 19:30ean. Astrabuduko Kultur Etxean.

BERANGO
▶ **Yo que tu me compraba una Harley.** Martxoak 8, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GETXO
▶ **Kontularien kluba.** Martxoak 9, 19:00etan. Algortako Kultur Etxean. Doan.

PLENTZIA
▶ **Molestias clownicas.** Martxoak 13, 19:00etan. Goñi Portalen.

MUSIKA

GETXO
▶ **Arbian.** Martxoak 1, 20:00etan. Algortako Satistegi Kafean. Sarrera doan.
▶ **Kontzertu klasikoak: Judith Jauregi.** Martxoak 3, 19:30ean. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 8 euro.
▶ **Sinbanda.** Martxoak 8, 20:00etan. Areetako Glass Kafean. Doan.
▶ **Kontzertu klasikoak: Sevillako orkestra barrokkoa.** Martxoak 10, 19:30ean. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 10 euro.

BESTEAK

BERANGO
▶ **Hitzaldia: Emakumea Euzkadiko Arte Eszenikoetan XX. Mendean.** Martxoak 3, 19:00etan. Berango Antzokian.
▶ **Bizikleta-martxa: Martxoak 8.** Martxoak 11, 11:00etan. Urteera Moreagatik.

PLENTZIA
▶ **Bisita gidatua alde zaharretik.** Martxoak 9, 11:00etan.

SOPELA
▶ **Salerosleen elkartearen azoka.** Martxoaren 2tik 4ra.
▶ **Mahaingurua: emakumea eta bertsolaritza.** Martxoak 9, 19:30ean. Kurtzio Kultur Etxean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Beste baten larruan

Hortxe, joandako aratusteen lekukorik eta gazteenak. Inauterietan, ohi den legez, etxeko txikienek, mozorroak aldean, kaleak hartzen dituzte; ingurua umorez, gogoz eta ilusioz zipriztintzeko. Ordu batzuetan bada behintzat, herria beraiena bihurtzen dute. Baina, jakin badakigu, umeei ez ezik, gazteei zein helduei ere ikaragarri gustatzen zaigula besteen itxura eta izaera gure egitea...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Errementariena

baseria, Urdulizen

Elortza auzoan dago Errementariena baseria, Urdulizen. Baseria baino, baseritik geratzen dena da, zutik adreilu gitxi mantentzen da-eta. Halere, kale-argia ipini diote aldamenean, antza, eraikin historikoa hobeto behatzeko... Bromak aparte, gaur egun etxebizitza multzoek inguratuta dago baseria. Etorkizun gitxiko eraikin zaharrak beste garai batean emon zituen onenak. Izen horregaz, agian, errementaria biziko zen bertan: inguruko erreminta-etxea izango ete zen? Orain erreminta gitxi egingo da, baina soloa oraindino lantzen dute; bertan egindako tresnakaz ete?

ASIER MENTXAKA

[berbetan]

Orain 20 urte baino gehiago kaleratu zuen Mikel Markezek (Errenteria, 1971) lehenengo diskoa, eta hilabete gitxi batzuk joan dira *Hiri hartan izan zen* (Elkar) bederatzigarren lana plarazatu duela; bitartean, akordurako letra eta doinu andana utzi digu. Euskadi Irratian duen “Kaja Beltza” saiorako (astelehen eta martitzenetan, 20:00etan) Bittor Egurrola alkarrizketazera Algortara etorri zela-eta, beragaz egin dugu berbetan. Bere abestietako askok belaunaldi baten bihotzak, baita burua ere, berotu zituzten, eta gori-gori jarraitzen dute; beste askok euren aldarrikapenatarako berba egokiak aurkitu zituzten... Euskal kantagintzako kantautore oparoa orain Irlanda aldean dabil, otsail amaiera arte (alkarrizketa hil erdialdean egin genion).

Mikel Markez

Euskal bihotz-garunentzat berogarri

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—*Hiri hartan izan zen, zer bizi-erazikoz diguzu hor?*

—Diskoa da, esango nuke, azken bost urteetako sorkuntza-lanaren ondorioa. Disko honetan batzen ditut beti-edo landu izan ditudan ildoak; alde batetik, beti oso bertsozalea izan naiz, zorionez bertsolariak-eta beti lagun izan ditut, azkenean espazio berdintsuak konpartitzen ditugulako, neurri handi batean...; bestetik, literatura ere azaltzen da, gustuko ditudan zenbait poetaren testuak daude; eta azkenik, neuk sortutako edo moldatutako kantuak daude. Esango nuke, hiri horretan, bai, batzen dira hiru kontu horiek; bertso jarriak, poemak bai hemengoenak eta bai kanpokoienak ere, eta neuk egindakoak.

—Abesti herrikoiak ere ba omen daude, baina hiria da...

—Justu, diskoari izenburua ematen dion “Hiri hartan izan zen” kantu hori Eskoziako doinu tradizional batekin moldatutakoa da, nik idatzitako testuarekin. Azkenean, guk kantu berriak sortzen ditugunean ere, beti, begi bat tradizioari begira izaten dugu; eta pisu handia izan du euskal kantagintzan kantu tradizioa-

lak, gurean behintzat. Agian, beste kantagintza batzuetan ez bezala, gurean, bai, pisu dezente izan du tradizio horrek. Esan daiteke, Ez dok Amairu-k erakutsi zigun bidea dela, geroztik etorri garen guztiok erabili izan duguna.

—Pello Ramirez eta Arkaitz Miner izan dituzu musikari-lagun nagusi, eta beste hainbat ere bai.

—Diskoaren bizkarrezurra, esango nuke, Pello Ramirez, Arkaitz Miner eta hiruror artean osatu dugula. Behin hori finkatuta zegoelarik, zenbait kantutan ikusten genuen hau edo bestea sartzeko beharra,

esaten badut, ez naiz astakeria esaten ari! Benedettiren poema batekin egindako kantuan, hotza eta bikote zintzoaren ingurukoa, berak parte hartu behar zuela oso argi ikusten nuen; bera ere oso Benedetti zalea delako, eta bagenuen hor topaleku komuna Iñakik eta biok. Beste kolaborazio berezi bat Jean Phocasena izan zen, berarekin, pentsa, lehenengo diskoa grabatu nuen, orain dela hogeita ez dakit zenbat urte! Orduz geroztik zenbait diskotan topo egin dugu estudioan-eta, bera izan da grabatu duena... eta bera punttu bat gehiago da, ez da soilik tekni-

“Diskoa azken bost urteetako sorkuntza-lanaren ondorioa dela esango nuke”

edo ekarpen polita izan zitekeela. Horregatik izan dira beste kolaboratzaile horiek. Iñaki Salvadorrek, nik uste, nire disko guztietan parte hartu izan duela! Iñakirekin lagun-harremana izateaz gain, esango nuke Euskal Herriko piano-jotzaile onena dela, ez bakarrik Euskal Herrikoa, Europako onenetarikoa dela

kari bat, baizik eta produkzioan inplikatzeko da beti, ekarpenak egiten ditu... Eta kasu honetan ere halaxe izan zen, grabatzen ari ginela, kantu batean, berak esan zuen “kontxo! Hemen sumatzen dut nik baxu baten beharra...”, begiratu eta esan nion “baxua... zuk baino hobe joko duenik gutxi daude Euskal Herrian”, “urteak



dira nik ez dudala ezer grabatu...” eta hau eta bestea erantzun zuen; azkenean, konbentzitu nuen. Errobiren baxu-jotzaile izan zela esaten badugu, bada dena esanda dago... Gero, ahots-mailan, Erramun Martikorenak derrigor parte hartu behar zuen; azken urteotan elkarrekin kilometro asko egin ditugulako, bai hemen bai kanpoan... Adiskidetasunaz gain, lekukotza ere utzi nahi genuen, bai bere diskoan baita nirean ere. Hori ere denboran bate-ratsu gertatu delako, Erramunek diskoa nik baino hamabost egun beranduago atera zuelako, diskoetxe berarekin, estudio berean grabatuta, musikari batzuk konpartituta ere... Den-dena parez pare zetorren, eta Erramunek nirean parte hartu behar zuen nik berean parte hartzen nuelako ere.

Azkenik, aipatzeko gelditzen den kolaborazioa, agian aurrena aipatu behar zena, izan ere diskoari izenburua ematen dion kantuan nirekin abesten izan nituelako Uxue Alberdi eta Eñaut Elorrieta. Kantua egin nuenean oso argi neukan kantua hasi nuela hiru ahotsak eta a capella. Lehendabizi neroni hasi nintzen kantua lantzen, etxean ahotsak grabatzen, bikoizten, gero hirugarren ahotsa sartzen... baina, sobera artifiziala gelditzen zen hiru ahots eta hirurak nireak izatea. Orduan, pentsatu nuen: “ea hau, norekin egingo nuke gustura?”; Uxurekin eta Eñautekin pentsatu nuen, kasu egin nien, oso prest agertu ziren, eta lehendabiziko entseguan berehala ikusi genuen kolore oso polita hartzen zuela... eta halaxe!

—Euskal tradizioa, Ez dok Amairu... aipatu dituzu. Euskal kantatutoreak hainbat zabiltzate jardunean, baina askok iritzi dio azken bolada luzean ez dela barri-rik aurkeztu euskal plazan. Zelan ikusten duzu egoera eta etorkizuna?

—Nik ikusten dudana hau da: kantautore berriak badaudela, eta badabilela jendea sortzen eta gauzak egiten. Agian, gizartearen beraren ezaugarriengatik edo dandalakoagatik, oso zaila egiten zaio, momentu honetan, 18 urteko gazte bati bere

burua ezagutaraztea. Euskadi Irratian egiten dudana saiora saiatzen naiz gazteak-eta gonbidatzen, eta badago jendea! *Youtube*-n eta sartzen bagara, edo han-hemen arakatzten hasten bagara, konturatuko gara ia-ia ejerzitua dagoela! Gazteak badaude kantua egiten, gauzak esaten, saiatzen... Baina, oso zaila zaie, momentu honetan, bidea edo lekutxo bat egitea euskal kanta-

“Pisu handia izan du euskal kantagintzan kantu tradizionalak; beste kantagintza batzuetan ez bezala”

gintzaren esparruan. Esango nuke, arazoa hori dela gehiago, komunikazio arazoa; pentsa, inoiz baino baliabide gehiago dagoen garaioan, eta denen eskura, grabaketak egiteko erraztasunak, zabalkundera-ko ia-ia doan... Eta, hain zuzen ere, kontrako fenomeno gertatzen da, oso zaila egiten zaiola jendeari bere burua ezagutaraztea! Agian, hain justu horregatik; hainbeste informazio eta zarata dagoelako.

—Baina zuen lehenengo garaian ere ez zen erraza, eta...

—Baina, pentsa, nik lehenengo diskoa 1991n atera nuen, eta urte hartan euskaraz aterako ziren... asko jota, 20 disko? Eta gainera ildo oso ezberdinetakoak; aterako ziren, uste dut, esaterako: Su Ta Garren lehendabizikoa, Negu Gorriakena... baina, kantariena? Igoal, Ruperrek aterako zuen,

“Gazteak badaude kantuak egiten, gauzak esaten, saiatzen; baina, zaila zaie lekua egitea euskal kantagintzan”

igoal ez; Benitok bai, edo igoal ez; Letek bai, igoal ez... Ateratzen ziren kantautoreen diskoak igoal lau izango ziren urtean; orduan, ziurtatuta genuen presentzia, jendeak entzutea e.a. Esan beharrekoa da ere, euskaraz egindako kantagintzak momentu honetan baino errepresentatibitate askoz handiagoa zuela gizartean, garrantzi han-

diagoa. Orain, berriz, ez nuke ziur esaten jakingo, baina Durangoko Azokan bakarrik 100 disko aterako dira euskaraz? Edo gehiago! Eta hori izugarria da! Alde bate-tik, oso ona, sorkuntza handia ateratzen delako, baina, bestetik, esandakoa, oso zaila da hor oihartzunik izatea, komunika-bideek kasu egitea, eta jendearengana hel-tzea.

—Gaztetan ere ibili zinen irratian. Orain Kaja beltza irratsaioa aurkezten duzu.

—Irratian 1994an hasi nintzen, hor Herri Irratia zen hartan, orain dagoeneko existitzen ez dena. Mariano Ferrer-ek eta Txema Auzmendik irakatsi zidaten nola erabiltzen ziren aparatuak eta... Beti-beti egin izan dut irratia. Orain, Euskadi Irratian, agian, oihartzun handiagoa dauka nire saioak, Euskadi Irratiak berak hedadura handi-agoa duelako e.a. Euskal kantagintzari leiho bat egiten saiatzen naiz, euskaraz egiten den kantuari leiho bat zabaltzen. Eta, maila horretan, nire leku pribilegiatua aprobetxatuz... beti nabilelako hemen kantaldian, hango bileran edo bestean bestearekin topo eginez, bada informazio dezent-jasotzen dut nire eguneroko jardunean, agian, bestela ezagutuko ez nituzkeen gaz-

teena, edo argitaratu aurretik kantari batzuen lanez e.a. Lagunak baliatuz eta egoera horrek ematen dizkidan aukerekin saiatzen naiz euskal kantagintzaren argazki bat ematen. Badakit, argazki oso pertsonala dela, gainera hori aldarrikatzen dut; kasu honetan egin nahi dudana autore irratia delako, nire ikuspuntua ematen dudalako

maila guztietan. Gero, kantu zaharren inguruan ikerketatxoak-eta bideratzen eta azaltzen ditut.

—Belaunaldi batek, behintzat, zure hainbat kantu, esaterako “Zure begiek” bere egin, herrikoi bilakatu ditu; egiletza galtze horrek zer sentiarazten dizu?

—Hori da kantari bati gerta dakiokkeen... gaizki esan dut, hori da kantu bati gerta dakiokkeen gauzarik onena! Eta neurri berean, kantaria ez bada oso egoista, gauza bera, kantariari ere bai. Azkenean, kantagintzaren kontu honetan ibiltzea suertatu edo aukeratu dugunok, zer egiten dugu azken finean? Kantuak sortu eta jendeari eman! Eta gerta daitekeen gauzarik politena da, hain zuzen ere, hori! Gure irudia ezabatzea eta kantua hori gelditzea, eta kantuak egitea bere lekua. Kantuek, azkenean, bere bizitza propioa dute; guk botatzen ditugu, hori dabilta, eta jendeak erabiltzen ditu, maitemintzeko, gauzak esateko, edo alai daudenean parranda egiteko, edo triste daudenean negar egiteko... Jendeak erabiltzen ditu euren bizitzan, eta erabat-erabat irrelebantea da nork egin dituen. Maila horretan, niretzat, ohorea da jendeak ahaztea nik “zure begiek” edo beste edozein kantu egin dudala.

—Bazter batzuetan, behintzat, hautsak harrotu zituen kanta lizun eta erotikoen diskoak; zelan gogoratzen duzu garai hura, oraindino esaten dizute zer bait horren gainean?

—Momentuan gauza kuriosoak gertatu ziren, anekdota zera dira... Denborarekin irri egiteko besterik balio ez dutenak... Baina, bere unean... Egia da, disko hori “abisatu gabe” atera nuela, eta noski, jendearen iruditerian ni, nola esango nuke, kantari erromantiko bezala sailkatuta nengoan. Orduan, egia da, disko horretan bazirela kantu erotikoa eta pornografikoren bat ere bai, eta kantaldi batzuetan nabaritu nuen jende batek durduzadura-ren bat sentitu zuela; kantu erotikoa aurkezten ibili nintzenean, nolabait zenbait



jendek kantaldira ailegatu eta ez zuen espero han aurkitzen zuena, eta batzuk altxa eta martxa egiten ere ikusi ditut. Azkenean, momentu hartan hori egin behar nuela sentitu nuen; modu kontziente batean ere, nik ere momentu hartan, zelan esan, hautsi nahi nuen kantautore erromantikoren irudi hori, beraz nahita egin nuen kantu erotikoen kontu hori eta ondorio guztiekin. Distantziatik begiratuta, ikusten dudana da, kantu erotikoen disko monografikoa egin nuela, eta zenbait kantu hori gelditu direla, oraindian gaztetxoan, sakelako telefono-etan-eta tarteka sumatzen ditut; hara! *Eskolako lanak tabernetan egiten dituzten neskatxak...* Begira, oraindik, hemen dabil

“Kantuak datoz, kantuak doaz; baina, esango nuke ez dudala abandonatu kantu erotikoen ildo hori...”

bueltaka kantua! Kantuak datoz, kantuak doaz. Baina, esango nuke, ez dudala ildo hori abandonatu; begiratzen baduzu “Hiri hartan izan zen” kantua bera erotikoa da, dudarik gabe, ezta?

—Irlandara zoaz laster (han da; elkarrizketa aurretik egin zen), hizkuntza ez dela muga sarri erakutsi duzue musikariek.

—Muga hori gaitutik genuke errazago eta samurrago, dudarik gabe, estatu independentea izango bagina. Guk, beti, kanpoan, ez bada Euskal Etxe edo euskal esparru inguruan, azaldu behar izaten dugu zergatik kantatzen dugun euskaraz. Jendeak esaten digu: “kontxo! Zergatik ez duzu espainolez abesten? Edo ingelesez? Hedadura handiagoa du eta...”. Hori da gure ajea. Baina, zortez, Euskal Herritik kanpo dauden euskaldunek eta, beste maila batean, Euskal Herritik kanpo dagoen edonork, beno, goza dezake gurearekin beste edozein hizkuntzatan egiten denarekin bezala. Hori ateratzen garen guztietan sumatzen dugu, eta guk, nik uste, geronek, kantariok eta taldeok,



Portu Zaharrean

Miren Larrea Agirrek utzitako argazkiak orriotara ekarri ditugu beste behin. Martxoaren 8 honetan ere, Algortako Portu Zaharreko emakume artistaren lana agerian utzi gura dugu.

Berak egin edota gordetako irudiak dira eta, oraingoan, umeen argazkiak erakutsiko ditugu; izan ere, Larreak urteerak antolatzen zituen auzoko umeakaz, inguruko herrietara.

Apur bat desberdina da, ordea, azaleko argazkia. Genara andre ezaguna dugu bera: Generatxu parkeak beragatik hartu zuen izena, inguru hartan lantzen baitzuen soloa.

Larreak maitasunez gorde du argazki zaharra. Gozatu irudi ederrokaz.

Argazkiak: **Miren Larrea Agirre**







Argituz > Barrikako hondartzari buruzko liburua

Geologia eta argazkigintza uztartuz, paraje ederrenak argitan ikus ditzagun

Urtarrilaren 31n aurkeztu zuten Barrikan Argituz liburua. **Ander Gomez Blancok** sortutako lanak argazkigintza eta geologia uztartzen ditu. Zalantza barik, Gomezek erakargarri bilakatu du askori urrun lotzen zaigun arloa: geologia. Horretarako, paisaia ederrak izan ditu bidelagun.



Lana artistikoa ere bada

Azkorri, Galeako itsaslakarra, Sopelako Barinatxe, Barrikako hondartza, Meñakoz, Muriola ... hamaika txoko ikusgarri ditugu gurean. Akaso, naturaren altxor horiek ia egunero ikusteak haiek haitemateko eta baloratzeko gaitasuna murriztu digu; horrek ez du esan nahi baina, egunetik egunera berariazko edertasuna galtzen dutenik. Batek daki, apika, beste begi batzuek begiratu behar genieke inguruan ditugunei, eta horrela

konturatuko ginatete geure pribilegioaz: naturaren alderdi basatierna hurretik miresteko aukera izateaz. Pribilegio hori ez du zalantzan jarri Ander Gomez

Blanco geologoak; horregatik, gure inguruko txokorik ikusgarrienetakoa aukeratu du bere lanerako; Barrikako hondar-

Barrikako hondartzak daukan aberastasun geologikoa azaltzen da liburuan

tza, hain zuzen ere. Horrela, Barrikako hondartzak daukan ikusgarritasun eta aberastasun geologikoa azaldu, argitara eman gura izan du. Ikuspuntu geologikotik Barrikako ondare natural garrantzitsuenetakoa aurkeztu du: bertako Barrika hondartza. Ez da baina, ikuspuntu geologikora soilik mugatu, sarri urruti begiztatzen dugun arloa, geologia alegia, askoz ere erakargarriago bilakatu du Gomezek. Horretarako, bere duen



Liburuaren egileak ez du argazkietan elementu arrotzik erakutsi

zaletasuna, argazkigintza izan du lagun. Hala, liburuan, geologia azalpenak berak egindako argazki ezin hobekaz dakarzikigu. Zalantza barik, Barrikako hondartza Gomezek lanaren izar eta ardatz nagusia da; izan ere, bere ustez *“Euskal Herriko eta Uribe Kostako hondartza ikusgarrienetakoa da”*; haatik bere hautua.

Argituz izena jarri dio azalpen zientifikoz eta argazkiz osatutako lanari; horrela, hitzak berak dauzkan esanahi biak agerian utzi ditu lanean; geologia azaldu; eta, argia eman, hurbil baina ilunpean daukagun altxor naturalari. Bestalde, argazkigintza eta geologia uztartzeaz gain, arlo horiekaz biekaz zerikusirik ez

daukan istorioa ere batzen du liburuak. Geologia zein argazkigintza hutsetik haratago doan lana da honakoa; autoreak liburuaren hasieratik amaiera arte doan istorioa sortu baitu haregaz goza dezagun. Halere, lanaren ardatz nagusiek: argazkiak eta geologiak inguratzen dute lan osoa.

Gomezek urteetan egindako lana da; 2007an hasi baitzen Barrikako itsas-bazterra irudikatzen, eta ordutik lan handia egin behar izan du argi ego-

Lanean argazkiak eta geologia ez ezik, istorio bat ere badago

kiagaz zein baldintza aproposakaz gura zuen lana erdiesteko; hainbat ikuspuntutatik ateratako argazkiak, baita garai ezberdinetan lortutako irudiak ere. Une bereziak bilatu ditu, betiere, argiagaz jolastuz, paisaiei eta argiari garrantzia handia eman baitie. Lana burutzea luzea eta nekeza izan den arren, Gomezek gogoz egin du *“gorputzak eskatzen zidan liburu bat egitea”*. Hortaz, esaerak dioen legez, gogoko lekuan aldatsik ez! ○

Ander Gomez Blanco > geologoa eta *Argituz* liburuaren egilea

“Nazioarteko hainbat ikertzaile Barrikara hurbildu da bertako azaloramenduari argazkiak ateratzeko”


—Uribe Kostan dauden hainbeste hondartzaren artean, zergatik Barrikakoa? —Hemengo ez naizen arren, beti izan dut oso gustuko Uribe Kosta. Barrikako izarra bertako ondare tektonikoa da; izan ere, bertan sekulako tolesak daude. Barrikan ez dago Zumaian bezalako egundoko *flisha*, baina bestelako material eta osagarri interesgarriak agertzen dira. Argi dago geologo batek gauza asko ikus ditzakeela Barrikan, zuzen-zuzene-

an aurki baitezakezu geologia. Nazioarteko ere jendea etorri izan da bertako azaloramenduari buruzko argazkiak ateratzera. Hortaz, garrantzi handiko da Barrikakoa. Bai, Zumaia geologikoki oso aberatsa da, baina hemen ez da gutxiagorik, geurea ere aberatsa da. —Geologikoki, Uribe Kostako hondartza aberatsena al da? —Nire iritziz, behintzat, ikusgarriena da, agian isolamendu geografikoan

dagoelako; izan ere, bertara heltzeko eskailerak jaitsi behar dituzu. Gainera, marea zabalgunek eta bertako labarrak ikusteko isolamendua ere badago, eta horrek guztiak hondartza zanpatu gabekoa izatea eragin du. Gainontzeko herrietan kostaldea herrietik hurbilago dago, hondartzak humanizatuagoak daude, zanpatuagoak alegia. —Edonork uler dezake liburua? —Liburuan azaltzen ditudan geologia

kontzeptuak edonork uler ditzake; behintzat hori lortzen saiatu naiz. Horrez gain, emozio handiko istorio paralelo bat ere agertzen da, eta hori edonork irakur eta uler dezake. Baina lanaren helburu bat edonork geologia ulertzea izan da. —Zenbat zailtasunegaz egin duzu topo? —Zailtasunak ugariak izan dira; alde batetik, lan egiteko ordu piloa sartu behar izan ditugu, 2007an hasi ginen lana egiten eta ordutik arratsalde ugari erabili ditugu argazkiak ateratzeko. Ondoren, geneukan informazio horri forma eman behar izan diogu, eta istorio bat sortu. Beste alde batetik, zailtasun praktikoak ere izan ditugu: kostuak altuak izan dira, gure poltsikotik diru asko jarri behar izan dugu,

zalantza barik, lan horrekin ez zara aberasten. —Argazkigintza eta geologia zure zaletasun bi: bien artean erabaki behar izatekotan, zeinegaz lotuko zinateke? —Geologiarekin geratuko nintzateke, geologiaren gozatzeko ez duzulako argazki-kamera behar, ikustearekin nahikoa da. Argazkiak ateratzea plazerra izan arren, lehenengo eta behin, gauzak pazientziaz eta lasai-lasai ikusi behar dira, gero argazkia atera ahal izateko. Behin inguruan zer daukazun ikusi duzula, orduan hasi behar duzu argazkiak ateratzen, ez lehenago. Ingurua begiratzeko lehenengo begirada zuretzako da, baita bigarrena ere. Sarri, zoritxarrez ez dakigu hori egiten.○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tif: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Entre interiores eskualdean

Urtzi Perezen azken film laburraren emanaldiak martxoan



Argazkian, *Entre interiores* film laburraren egile Urtzi Perez

Urtzi Perez romoztarraren *Entre interiores* film laburraren zenbait emanaldi antolatuta dituzte eskualdean datorren hil hasierarako.

Romoko zinegilearen azken lanaren izenburua *Entre interiores* da, berak idatzi du film laburrerako gidioa eta berak zuzendu du. Bederatzi minutu inguru irauten duen lanak hurrengo istorioa laburbiltzen du: "Ramonek bere logelagaz gozatsen du, ostera, oraindik ez dakiena da anaia etxera itzuliko dela, benagaz bizitzera". Hori da Ander Lipus eta Patxi Lazkano aktore ezagunek antzertu duten istorioaren abiapuntua, horren ondorioz sortuko diren gogoetek eta ezinegonek osatzen dute lanaren garapena. Irudi eta kamera arduraduna Itoiz Navarro da eta zuzendari-laguntzailea Sergio Dominguez.

Egileak "drama filosofikoa" generoren barruan kokatu du film laburra eta hainbat aurkezpen-ekitaldi iragarri ditu honezkerok. Horietako batzuk eskualdean

izango dira, horrenbestez Perezen azken lana ikusi gura duenak horretarako aukera izango du laster.

Hala, momentuz, hiru auzupen-ekitaldiren barri izan dugu, hurrenez hurren: Martxoaren 2an, barikuan, arrastiko 20:00etan emongo dute *Entre interiores* filma Itzurbaltzeta Gaztetxean (Romon).

«Romon, Larrabasterran eta Leioan, hurrenez hurren: martxoaren 2an, 3an eta 4an»

Martxoaren 3rako, zaturako, hitzordua Larrabasterran ipini dute, Plaza Beltza gunean (19:30ean).

Azkenik, martxoaren 4an, domekan, egingo den emanaldia txanda bitan banatu dute: lehenengo proiektzioa 19:30ean hasiko da, eta bigarrena, ordu erdi beranduago. Egun horretarako zita Leioako Udondo Gaztetxean izango da. Ekitaldi horietako batzuetara egilea bera bertaratu da berba egiteko prest. ○

Martxan da lehiaketa

Leioako Pop-Rock lehiaketan parte hartzeko epea zabalik **martxoaren 30a arte**



Irudian Ero taldea, joan den urtean Euskarazko abesti onenari saria jaso zuen

XII. edizioa beteko du aurten Leioako Pop-Rock lehiaketak.

Pop-Rock eta Metal kategoria orokorretan lehiatuko dira bertara aurkeztuko diren taldeak. Besteak beste, gitxienez bost abestik osatutako CD-a bidali behar dute partehartzaileek martxoaren 30a baino lehen; halaber, parte hartzeko baldintza danak Kultur Leioako webgunean kontsulta daitezke.

Lanak jaso ostean, epaimahaiak apirilaren 23rako talderik onenak aukeratuko ditu, eta finala San Juan jaietan egingo da. Sarietako dagokienez, kategoria nagusi

bakoitzeko talde irabazleak 1.800 euro jasoko du, eta kategoria bakoitzeko talde irabazleen bina abestik osatutako CD-aren grabaketa; Leioako Udala saria jasotzen duen udalerriko talde onenarentzat 600 euro; Euskara Zerbitzuaren Euskarazko abesti onenari saria lortzen duenak 600 euro; eta ikus-entzuleen Zuzeneko onenari saria eskuratzen duenak Leioan kontzertua emoteko aukera. Hala bada, hasi buruak astintzen eta musika-tresnak berotzen... entzun zaitzategun! ○

Info+: www.kulturleioa.com
94 405 58 50 eta gazte@leioa.net

diskoak

Faktore komunak
Enkore
Baga-Biga



Errekalden 2009an sortutako taldeak lehenengo lan luzea plazaratu du. Hardcore melodiko indartsua jorratzen dute eta aurretik EP bi kaleratu ostean argitaratu dute *Faktore Komunak* lana. Aurreko lanengatik hainbat sari jaso dituzte, besteak beste, joan den urtean Gaztea maketa lehiaketako sari nagusia.

Horthy#4
Horthy
Autoekoizpena/Indie



Elektro-pop estiloa lantzen duen Horthy talde nafarraren laugarren lana kalean da dagoeneko. Azken lan honetarako, barriro ere, ingelesez abesten dute eta azaldu dutenez, besteak beste, kanta barriek hurrengo taldeen eragina dute: La Roux, Depeche Mode, Kasabian, MGMT, Gorillaz, Crystal Castles e.a.

Amor, Odio y Ruido
The Kluba
Maldito Records



Skalariak taldearen sortzaile eta buru izandako Juantxo iruindarrak The Kluba gaur egungo taldeagaz kaleratzen duen bigarren diskoa da *Amor, Odio y Ruido*. Erro jamaikarrak rock and rollagaz nahasten diren doinuek osatzen duten hamabi kantu batzen ditu lanak: "mezu ezkeriarrak, protesta eta matxinada topatuko ditugu", gaztelaniazkoak ia danak.

Gureando!nu > iazko argitalpenak

Harrobia Lantzen ekimenak eta Entzun! web atariak elkarlanean, bigarren urtez, GUREANDO!NU 2011 urtekari digitala aurkeztu dute. Joan den urtean kaleratu ziren Euskal Herriko musika argitalpenen zerrenda eskaintzen du urtekariak; eta horrez gainera, musikari lotutako hainbat kazetarik eurentzat esanguratsuenak diren hamar disko hautatu eta horien gaineko zertzeladak eskaintzen dituzten idazkiak batzen ditu. Ekimenaren arduradunek, halere, alde zuzenetik, adierazi dute: "2011n argitaratutako Euskal Herriko disko guztiak (edo ia)" batu dituztela. Irakurri edo lortu gura duenak beheko webgunera jo besterik ez du, hor ipini dute jaisteko aukera.

Info+: www.entzun.com

klasikoak > Andres Isasin

XVII. Kontzertu Klasikoak zikloagaz gozatu ahalko da martxoko zapatuetan (danak 19:30). Antolatzaileek iragarri legez, hurrengo musikarien emanaldiak egongo dira: martxoaren 3an (sarrera: 8 euro), "Judith Jauregui, nazioartean etorkizun handiko piano-jotzaile donostiarra eta entzunareto ospetsuetan ohikoa dena"; martxoaren 10ean (sarrera: 10 euro) Sevillako Orkestra Barrokoa, "maila handiko taldea, antzinako musikan espezializatua"; eta martxoaren 17an (sarrera: 8 euro) Quatuor Schumann, "ospe handiko bakarlariz eta musikariz osatutako laukotea, ganbera musikaren arloan gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari dena". Kontzertu danetarako bonua ere salgai dago 20 eurotan.

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kalegoz bar) Tf. 94 491 48 05 Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]


Harkaitz Cano gurean

Uribe Kostako **Irakurzaleen Txokoan** *Twist* nobelaz jardungo dute **martxoaren 1ean**

Orain dela hil gitxi aurkeztu zuen Harkaitz Canok *Twist* (Susa) nobela. Lasarte-Oriakoaren azken lan horren argumentuak honela dio: “*Soto eta Zeberio* babitu, torturatu, hil eta desagerrarazi egin zituzten. *Diego Lazkano* idazleak gogoan betiko txertaturik daramatza bi lagunak, ezin ditu oroimenetik uxatu, bi itzal haietatik elikatzen ari da hogeitaka urtetan, *Soto eta Zeberio*ren ordez bizi ote den zalantzarekin, haien ordez bizitzea balitz bezala bere erantzukizuna. Errua, maitasuna, traizioa, sexua, indarkeria, lotsa, justizia, erredentzioa, usurpazioa, antzezpena... asko dira nobelako hariak, baina denen gainetik nagusitzen da adiskidetanari egindako kantua”. 80ko hamarkadako, zehatz-mehatz 1983an, Euskal

«Soto eta Zeberio babitu, torturatu, hil eta desagerrarazi zituzten...»

Herriko girora eroango gaitu *Twist*-ek; aurkezpenean egileak azaldu legez, “*Pertsonaiak fikzioak dira, istorioa fikzioa da, baina, jakina, bai pertsonaiak eta bai istorioa 80ko hamarkadaren ispiluan jarri dira, ispilu deformante batean, eta ispilu horretan identifikagarri egingo dira 80ko hamarkadan Euskal Herrian bizi izan zen*




Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975)

edonorentzat”. Askok ondorioztatuko duenez, Joxean Lasa eta Joxi Zabalen antzera, babitu, torturatu, hil eta desagerrarazi dituzte nobelako pertsonaiak.


Horretaz guztiaz eta gehiagoz jardungo du Harkaitz Canok martxoaren 1ean Aldai Patronatuan (Algorta). Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak egun horretako arrastiko 19:30ean ipini du idazleagaz zein irakurzaleakaz hitzordua. Nobelak 440 orrialde ditu eta ez baduzue irakurri oraindik baduzue denbora, eta ipinitako zitarako idalegatz ezbaidatzeko, hausnartzeko edo galderak ondo prestatzeko ere bai. ○

liburuak



Kontakizunak
Edgar Allan Poe
Elkar

Beldurrezko generoa eraldatu zuen estatubatuarren ipuin ezagunenetakoez osatzen dute Elkarrek euskaraz aurkeztu duen bilduma, besteak beste: *Berenize*, *Usher Etxearen hondamena*, *Maelström*, *Erretratu obala*, *Bihotz salataria*, *Putzua eta pendulua*, edo *Amontillado upela*.



Euskal Herriko Lapurdi...
Thierry Truffaut
J. M. Barandiaran Fundazioa

Euskal Herriko Lapurdi probintziako inauteri eta negu ohituren zerrendatze bati buruz izenburupean batu du Thierry Truffaut antropologoak azken 33 urtean egindako ikerketa-lana. Euskal herri-kulturaren adierazpenen berreskuratze eta ezaugarriaren aldeko lana da.

[kirola]

Alain Arroyo > Mirandes futbol taldeko jokalaria

“Gure ametsak luze iraun du eta oso pozik gaude egindako lanagaz”



Urte bi daroa Club Deportivo Mirandes taldeagaz jokatzen Alain Arroyo getxoztarrak

Arenas taldean hasi zen futboleko Alain Arroyo getxoztarra. Galea, Getxo, Portugalete edota Guadalajaran aritu da Mirandesen baino lehen. Espainiako Errege Kopako finalerdia jokatuko dute.

—**Ekintza gogoangarri honeguz ospetsu egin zarete, zelan daroazu ospearen zama?**
—Ospea ez dakit, baina nabari da jendeak gehiago ezagutzen zaituela orain. Herrian noala agurtzen eta zoriontzen naute.

—**Zuek ez zarete profesionalak eta lana partekatu behar duzue futbolagaz, ezta?**
—Gehienok ikasten gabiltza, baten bat lanean, ez gara talde profesionala: arratsaldean entrenatzen dugu futbola bestelako ardurakaz uztartu ahal izateko.

—**Koparen kasuan, horrelakoetan esaten da ez dela espero horren urrun iristea, baina barruan zer sentazio daukazu?**

—Denboraldi hasieran txantxetan esan nuen aurten Kopa irabaziko genuela, baina txantxetan hasi zena serio bihurtu zen gero: kanporaketak irabazten hasi ginen eta laster broma gutxi egin zitekeen, daborduko Kopa ez zen txantxarako gaia.

Villarreal taldearen aurka jokatu behar genuenean argi geneukan irabazi behar genuela, Kopa irabaztera jo behar genuela; onena eman behar genuen. Arraroa da gure mailako talde bat finalerdietara iristea: gure ametsak luze iraun du eta oso pozik gaude egindako lanagaz.

«Batzuk Athletic-eko bazkide gara eta bere alde egingo dugu finalean»

—**Eta merezi bezala ospatuko zenuten?**
—Bai, noski, ospatzeko da-eta! Beti ez da jokatzen Kopako finalerdia eta, gainera, San Mames zelaian.

—**Athletic-en aurka galdu, kideen aurka nolabait, taldez aldatzeko gogoia ematen zuen une horretan?**

—Athletic egoera oso onean zegoen, bage-nekien oso zaila izango zela irabaztea. Batzuk Athletic-eko bazkide gara eta bere alde egingo dugu finalean.

—**Eta hurrengoan Kopa irabaztera?**
—Taldea Kopa jokatuz gero, irabaztera joko dugu ilusio handiagaz. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kizoi
moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Iziar Nieto eta Miguel Atutxa > horma-irudigileak

“Denetik margotzen dugu: kaleko eta barruko hormak, autoak, kioskoak e.a.”

Lehen hormak zikintzea esaten zitzaien, gero graffiti; baina Iziar Nieto donostiarra eta Miguel Atutxa algortarra ez dira graffiti-egileak: eurek horma-irudiak egiten dituzte, edozein motatako hormetan; 400muralismo egitasmoa osatzen dute. Herria edertzeko modan ipintzen ari dira horma-irudiak, baina esparru guztietara zabaltzen ari dira.



Info+: www.400muralismo.com

—Hormak margotzen dituzue, baina ez duzue ikasi Arte Ederrak?

—(I) Ni diseinatzaile grafikoa naiz, publizitate grafikoa ikasi nuen Irunen.

—(M) Ni aspaldi hasi nintzen hormak apaintzen, graffitiak egiten. Beranduago, diseinu grafiko ikastaro bat egin nuen, eta margolari gisa ere lan egin dut. Zaletasun gisa hasi zena naturalki bihurtu da ogibide. Daborduko ia urte bi daroagu 400muralismo egitasmoagaz.

—(I) Gainera, edonork ezin dezake margotu. Gure kasuan, diseinuak eta proiektuak nik egiten ditut eta Miguelek margotzen du.

—(M) Niri ere laguntzen dit, margotzerakoan gauza asko egin behar da eta lan handia da.

—Eta edozein lekutan egiten dituzue horma-irudiak?

—(M) Eskatzen diguten leku guztietan, denetik margotu dugu: kaleko hormak, lokalen barrukoak, kamioiak, kioskoak, skate-pistak, eskulturak e.a.

—(I) Bezeroen artean ere denetik dago: erakunde publikoak, enpresa pribatuak, norbanakoak e.a.

—(M) Batzuetan guk jo dugu bezeroarengana proposamen batez, besteetan eurek eskatutakoa egin dugu.

—(I) Gustuko genuke lan handiagoak egitea, Udalentzako, adibidez, herri batean irudi desberdinak eginez. Gehienetan herri bat ikuskatu eta proiektu bat egiten dugu, gero Udalarari aurkezteko.

—(M) Batzuetan aintzat hartzen dute proiektua, baina probatzeko irudi bakarra egiteko eskatzen digute. Eurentzako

“Graffitiak lanaz aparte egiten dira: horma-irudiak margotzeak ez dauka zerikusirik kaleko graffitiak egiteagaz”

arazoa dira margotzeak, eta horiek ekiditeko erabiltzen dituzte horma-irudiak, nahiko errespetatzen direlako. Dena den, guk ezin ziurta dezakegu gainean margotuko ez dutenik.

—Eta zelan doakizue negozioa?

—(I) Zaila da, une honetan denetik egiten dugu, baita horma kolore bakarrez

pintatu ere. Baina bestelako esparruetara zabaltzen ari gara: umeakaz tailerrak egiten ditugu graffitiak margotzen irakasteko.

—(M) Ildo horretan sakondu gura dugu. Adibidez, Sukarrietan ikastaro bat egin genuen arazoak zituzten gazteakaz.

—Eta zer material erabiltzen duzue?

—(M) Hormaren arabera, teknika desberdina: errotuladoreak, brotxa, pistola, spraya, margoa e.a. Denetik.

—Spraya erabiltzen duzue, baina ez zarete graffitigileak?

—(M) Graffitiak lanaz aparte dira: horma-irudiak margotzeak ez dauka zerikusirik kaleko graffitiak egiteagaz. ○

Fredi Paia

“Plantatxu”

Florentzio Zarraga “Plantatxu” bertsolari leloztarra.
1958ko abuztuan eginak

1- Beraneanteak etorri dira
Plaian bañuak artzeko
Euren burua otzitu ondo
Deskantsuan egoteko
Denporea be naia dauke
Gerespetara joateko
Jan eta edan ondo eginda
Siestea botateko.

2- Automobilla begira dauke
Gura danean joateko
Prisarik bere ez dauke asko
Nai dan lekuan lotzeko
Orixe dela gauza ederra
Ederto bizi izateko
Dirurik asko euki ezkerro
Edonondik gastateko

3-Oso aberatsa izan behar da
olan bizi izateko
Gura danean dirua sobran
Bazarretan botateko
Suerteza euki bear ostera
Osasunez egoteko
Orixe dala gauza ederra
Mundua ikusiteko

4-Pobre danak be egingo leuke
baleuko ezer gastateko
Baña bearren joan ber dabe
Jornala irebazteko
Amar ordutik gora eginda
Etxera allegateko
Gorputza ondo kantsaurikan
Gauza eskasa jateko

5-Bape bakoak txarto ta nekez
Dabiltza beti baraurik
Erropa zarrak soñean eta
Erroteko ez dirurik
Pekatu da ori eleuke egon ber
Munduan orrelangorik
Jangoiko Aitak eztau agintan
Orretariko gauzarik

6-Negua bere eldu eiten da
Bearra joateko
Erroparik be eztauko askok
Gorputzean iminteko
Barri edo zar euki ezkerro
Otza ondo kenduteko
Beldur barikan egon leiteke
Edonora joateko

7-Bidea bere txarto egoten da
Neguan ibiliteko
Eta etxean oñetakorik
Ez aldean iminteko
Aste duztia egin bear da
Dirua irebazteko
Onelan bere allegatu ez
Barriak ekarritoko.

8-Dana kantera dana area
Kamioiez eroateko
Ori be bear etxe barriak
Bear dan lez egiteko
Getxo, Berango erri politik
Turistak bizi izateko
Baserritarrak biderikan ez
Etxetikan urtetako.

9-Diputaziño be etorri zan
Bideak ikusitera
Ezer ein barik joan zirean
Lengo lekutik atzera
Barri bere badatoz areik
Getxorik Martu aldera
Duztiok dogu pozik urtengo
Arin agurka bidera.

10-Llona maitia kasan joan da
Txoriak arrapatzeko
Zarraga jauna begira dago
Berarekin egoteko
Suertau bajako momentu ona
Nai dan duztia ilteko
Automobilik ez dau izango
Etxera etorritoko

11-Andra Maritan joan giñean
Duztiok Begoña aldera
Meza eder bat entzuteko asmoz
Gure Amaren aurrera
Duztiz andia zan bere poza
Danok egonik batera
Bertso bana be kantadu geuntsan
Agur eginda etxera.

12-Andikan bera jatsi giñean
Berba batzuk egiteko
Ardao zuria edan genduan
Apur bat nasaituteko
Bazkaria be Bilbon eginda
Obeto an egoteko
Euri andia mogidu eban
Dana alperrik galtzeko.

13-Domekarako itxi temea
Ezpadator txarragorik
Al badozue joan duztiok
Entzutera bertsolarik
Arratsaldeko sei ta erdietan
Ezpadao errakuntzarik
Duztiok ara joan gaitezan
Iñortxo be lotu barik

14-Bertso barriok Zarraga onek
Pozikan dituz idatzi
Lexonan jaio eta Berangon
Aspalditxoan da bizi
Iñori txarrik eiten badeutse
Artu daiela pasentzi
Laster konpondu egingo dogu
Guk daukagun diferentzi.

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitez.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Asador Cervecera BERANGO

Oilasko erreak, indabak, txuletoia, arraina trianguetan
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak
Pollo asado, txuletones, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Bakailao saskia

Patataz egindako otzara bete-betea



Gaziaren eta gozoaren arteko konbinazioak berezi egiten du

Barria ei da "Bakailao Saskia" Portu Zaharra tabernako barran; halere, ez du denbora luzeren beharrik izan bezeroen begiko bilakatzeko. Itxura ederra, konbinazio ezohikoa, eta zapore nahasketa fina behar izan du pintxo honek di-da batean barratik desagertzeko. Ez da harritzekoa, baina, bezeroek erraz asko jatea, pintxoak duen itxura ederrari baino ez diozu begiratu behar, hura aukeratzeko, eta une batez beste pintxo atsegin guztiakaz ahazteko.

"Bakailao Saskia" pintxo egiteko lehenengo eta behin, patatak juliana erara moztu behar dira, olioak bero egon behar du, baina ez lar, patatak erre ez dakizkigun. Ondoren, pintxo honen alderdi teknikoena dator: patatei saski

itxura emateko iragazki antzeko bi tresna berdin erabili beharko ditugu; bertan patatak sartu, eta biak elkartu beharko ditugu biribil bat osatuz. Horrela patatek saski forma hartu dute. Hortik atera, eta geure otzaratxo prest izango dugu elikagaiez betetzeko.

Horrela, azokan legez, saskia produktuz bete beharko dugu; horretarako olio eta berakatzagaz frijitutako bakailao zatitxoak bertan sartuko ditugu. Ondoren, eta bakailaoaren gazitasunagaz kontrastea egiteko, piper berde eta gorri bat frijituko dugu, horiek saskiaren gailurrean jartzeko. Beraz, prest, zaporetandagaz gozatzeko. ○

Osagaiak: patata bat, bakailaoa, piper gorria, piper berdea, berakatzeta eta olioak.



LAIAK Taberna



BASARTENA URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (samera, Jata Mendia) T: 400 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

<p>URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Honenbeste itxaron ostean, azkenean egia bihurtuko dira zure ametsak, eta laguna erango dizute konpainia egin diezazun. Dena den, batzuetan badakizu: hobe bakarrik...</p>	<p>OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Lurrean topatuko duzu 50 euroko bileteta eta, pozarren, lagun guztiak gonbidatuko dituzu. Ohartu orduko dana gastako duzu, zeuretzat ezer gorde barik, hurrengoan argi ibili!</p>	<p>ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Berandu, baina azkenean mozarrotu zinen. Koadrilakoak itsasoz jantzi ziren eta zuk sirena gura zenuen baina, azkenean... a zer legatz piura zurea!</p>
<p>AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Gabonetan gabon, sanblasetan opilak eta inauterietan tostadak. Hurrengoan zer izango da? Ederto zaintzen duzu zure burua, bai: bejondeizula! Zu bai bonbon!</p>	<p>HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Itxura aldatu guran lagun baten esku utzi duzu ulea, eta ederra egin dizu! Zoaz ileapaindegira, baina badakizu mirariak Lourdesen baino ez ei dituzte egiten.</p>	<p>EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Entrenatzen hasi zara eta, laster, maratonia korritzeko moduan egongo zara. Honela jarraituz gero, Forrest Gump-en moduan amaituko duzu, noraino iritsiko zara?</p>
<p>GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Hotzak akabatzen zabilta negua hasi zenetik, ezin berotu. Etxean gorde zara abendutik hona. Urten kalera, bestela hartz hasi eta banpuro amaituko duzue-eta!</p>	<p>LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Oso pozik zabilta aurreko astebururik ona, zer ibili zinen bada? Maitasunak bisita egin al dizu? Jakin egizu itsasoan arrain polit asko dagoela eta denetik probatu behar dela...</p>	<p>IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Azkenean topatuko duzu lana, hainbeste hilabete bila ibili ostean. Baina bai, erdoilduta zaude eta kostako zaizu erritmoa hartzea. Lasai egon, hori ez da eta sekula ahazten.</p>
<p>META (Irailak 17 urriak 16) Amabixi agertuko zaizu ametsen artean eta desira eskainiko dizu. Ez sinetsita, txorizo bokata eskatuko diozu, baita eman ere! Orain arrastiro-arrastiro izango duzu bokata mahai gainean.</p>	<p>HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Zer, inauterietan ondo? A zer martxa daukazun! Astero-astero zabilta mozarrotuta, herri batetik bestera. Laster Rio de Janeiro egongo zara, sanba dantzatzen!</p>	<p>NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) Zapatuan poz-pozik urten zinen etxetik, urtero legez, zure marrubi mozarroagaz, baina daborduko jendeak ez zaitu ikusten horren bihurri. Datorren urterako jantzi sagar edo anana.</p>



Kopiak **SALGAI**
UK aldizkariaren bulegoan
Martikoena 16, 2. solairua
Algorta (Getxo)
Alangoko Osasun Zentroaren alboan
GETXO 2
AKORDATEN NAZ
Urteko Kostako aldizkariaren ekoizpena **uk**

VASA
Klimatizazioa
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA
BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz

gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Bete hutsuneak eragiketa matematiko hauek norabide guztietan zentzua eduki dezaten.

	+	5	=	7
+		+		+
6	+		=	
=		=		=
	+	9	=	17

6	+		=	12
+		-		-
	+	1	=	
=		=		=
11	-		=	

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zenbat egun dauzka aurtengo otsailak?

- Hogeita hamaika
- Hogeita bederatzzi
- Hogeita hamar

La Gusana liburudenda SARIA
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Sardina
 > Irabazlea: **Aretx Bidaurratzaga Aresti***
 *deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurreko irudia duzu atal barri honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA **Oinutsik** kontsulta podologikoa 
 Zubigane 4, Sopelana
 Tf. 94 404 74 20
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Sexual Herria
 > Irabazlea: **Uriz Moreno Ajuria***
 *deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



JUAN LUIS GEREDIAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO BATELA, 1972

Auzoko jaiak zirela eta, Arriluzeko Gurutze Gorriko eraikinaren ondoan dituzu batelariak. Seguraski Maiatzaren Lehena izango zen, egun horretan hasten zen batel-denboraldia Deustuko Kanalean. Lagunak orduan eta orain; urtebete edo izango da elkartu zirela orduko garaia gogoratzeko, Juan Luisek prestatutako goiko argazkiaren kopia bana hartzeko eta Tellagorri jatetxean bazkaltzeko; ez ziren itsasoratu batelean, itsasoa haserre zegoelako. Azpimarratzekoa bi oraindino arraunean ari direla: Juan Luis Algortako beteroenen traineruan eta Iñaki Santurtzikoan; Santos oraintsu arte ibili da Algortakoan. Bostek erabaki zuten iaz, barrero elkartzen direnean batelean itsasoratzea. Hori duk sasoi!

Ezkerretik eskuinera: Santos Garate (brankaria), Juan Luis Gerediaga (istriborreen lehena), Paco Blanc (patroia), Vicente Blanc "Cuco" (ababorrean 2.), Iñaki Muneta (popakoa).

J. SANG > musikaria

“Bazkarietan espero dut: lagunak, txuleta ona eta *gin-tonic-a*”

Testua: **Z. Iturburu** Argazkia: **Mauka musikagintza**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Konstantea eta aldartetsua.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

V de Vendetta filman, pelikularik gustukoenetarikoa da.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Zine-zuzendari edo aktore. Baina ez dakit balioko nukeen, nire aurpegiak beti benetan sentitzen dudana islatzen du-eta.

Zure umezaroko oroitzapen bat?

Udako oporrak. Gurasoekin denbora gehiago pasatzen nuen eta oso ongi pasatzen genuen elkarrekin.

Aitor dezakezun bizio bat?

Janaria. Familia edota lagunekin bapo bazkaltzea gustuko dut, hiru gauza hauek itxaroten ditut: lagunak, txuleta ona eta *Gin-tonic-a*.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Balira (Indonesia). Nire ametsetako bidaia izan zen.

Zein da zure ametsetako bat?

Errealitate bihur daitezkeen gauzekin amesten dut, horietako bat: Euskal Herri librea, kartzeletan preso politikorik gabe.

Eman duzun kontzerturik bitxiena?

Governors-en hasieran Irlandan, *Front-page* lokalean. Punkiekin bete zen eta gure musika beste estilo batekoa denez, desastre itzela izango zela pentsatu genuen. Azkenean oso ondo irten zen, bukaeran jendea taula gainean... Pixka bat surrealista.

Nori ez zenioke egingo honelako elkarrizketa bat?

Rouco Vareleri, Rajoyri, Rubalcabari, Garzoni, Espainiako Juan Carlosi... Beraien iritziak zabaldu eta goraiatzeko bide larregi dituzte-eta. Ez dut uste estaldura gehiago merezi dutenik eta gainera ez zaizkit beraien zaletasunak interesatzen. ○

LABURREAN— Otsailaren 25ean, inauterietan, Algortako Portu Zaharreko taula gainean aritu zen Governors musika taldea, Hamaiketan eta Vendetta taldeak batera. J. Sang arrasatearra (Gasteiz, 1975) Governors-eko abeslaria du. 2007an ekin zion musika proiektu barri honi, baina eskarmentu handikoa da J. Sang arlo horretan: Ekon eta Fjord taldeetan aritu izan da, horregatik ezaguna. Algortan azken diskoa aurkeztu du Governors-ek: Collage. Iragan azaroan argitaratu zuten eta, orduetik, buru-belarri dabilza kontzertutan hara eta hona.



EUSKARA, MERKATARITZARA ZERBITZU-GUTUNA



ERROTULUA IPINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak.

ITZULPEN ZERBITZUA gehi@getxo.net

Urte osoan eta doan. Zure kartelak eta idatziak euskaraz edo ele bietara, zuk nahi duzun bezala.

MAKETAZIO ZERBITZUA

Zeuk aukeratu kartela egiteko gehien gustatzen zaizun diseinua eta paper-tamaina. 10 paper-diseinu aukeran.

“DENDAKETAN” EUSKARA IKASTARO LABURRAK

Bezeroei arreta euskaraz egiteko 60 orduko ikastaro laburrak.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Baldintzak betetzen dituenari Udalak matrikularen %100 itzuliko dio.

MATERIAL SORTA INTERESGARRIA

Euskaraz edo ele bietan eta DOAN. “Zabalik/ Itxita”, “Merkealdia”, “Eskaintza bereziak”, “Erreklamazio-orriak eskuragarri”, “Gabonetako loteria”, “Udako ordutegia”, “Oporretan gaude”, inprimakiak (fakturak, ordainagiriak...).

EUSKARA BIZI

HEMEN ERE EUSKARA BIZI leloa duten mahai-gaineoak, kartelak...

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA

EGIN ZURE ESKAERA



94 415 22 52



gehi@getxo.net